



## Kereila Berriztik Argentinara bidean

2016an Argentinako kereilari babesa eman zion Berrizko Udalak. Urte bi geroago, kereila jarri eta Servini epaileari bidali dio, “egia, justizia eta erreparazioa” lortzeko asmoz. • 5




## Migratzaileei aterpea eta babesa emango dizkiete Berrizen

**Berriz** | Eusko Jaurlaritzak orain egun batzuk iragarritako aldi baterako migratzaileentzako zentro berria Berrizen egongo da, Olakueta aterpetxean. Zerbitzua kolektiborik “ahulenei” eskainiko diete: adin txikikoen kargu dauden emakumeei, bakarrik dauden emakumeei eta gaixorik dauden pertsonei. Hogei eguneko egonaldia egin ahalko dute gehienez. • 5

## 'Zelai' handiaren seme-alabek harriak jasotzeko tradizioari jarraitzen diote

**Mallabia** | Jose Antonio Gisasola 'Zelai' izen handietakoa da harri jasotzen. Lehenengo lerrotik erretiratuta dago, baina plazetan darrai Karmele eta Jon seme-alabei laguntzen. **2-3. orrialdeetan**

LEHIOR ELORRIAGA



%100 produktu naturala, bertokoa eta kalitatezkoa

Zure herriko denda txiki eta harategietan eskuragarri

**ERROTAZAR BASERRIA**  
BERRIZ (BIZKAIA)

Tel.: 648 400 618 - aiarbi@yahoo.es

**Jose Antonio Gisasola Gisasola**  
Harri-jasotzaile ohia  
Mallabia | 1958

**Karmele Gisasola Zenikazelaia**  
Harri-jasotzailea  
Mallabia | 1994

**Jon Gisasola Zenikazelaia**  
Harri-jasotzailea  
Mallabia | 1999



LEHIOR ELORRIAGA

Jon, Karmele eta Jose Antonio Gisasola

## “Pilotan esaten da ez dela komeni botileroa aita izatea, baina gure kasuan kontrakoa da; alboan gura dugu”

Mallabiko Zelai baserrira doanak lehenengo begiratuan asmatuko du zein den Gisasolatarren pasioa: harri-jasotzea. Harria han eta harria hemen, ingurua apaintzeko zein entrenatzeko. Hantxe entrenatzen dira gazte asko, tartean Jon eta Karmele, 'Zelai' handiaren seme-alabak

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

**Aurkezpenik behar ez duen harri-jasotzailea da Jose Antonio Gisasola 'Zelai'.** Harri txikien historian dagoen izen handienetakoa. Urte batzuk erretiratuta daramatza, baina, hala ere, 'Gisasola' abizena sarritan ikusten da plazetan gaur egun ere. Hein batean, Jon eta Karmele seme-alabei esker da. Gazteak dira eta gogotsu dabilta. Eta aita... beti ondoan.

Udan herrietako jaiak herri kirolen erakusleho nagusi izaten dira. Jaialdi asko izan dituzue?

**Jon Gisasola:** Nik iaz baino era-kustaldi gutxiago egin ditut aurt-en, arrazoi bategatik: herri kirolen pentatloia prestatzen ari naiz eta horri eman diot inportantzia gehiago: entrenamenduei, gerria

zaintzeari... Txapelketetan ere aritu izan naiz.

**Karmele Gisasola:** Ni inoizko gehien ibili naiz jaialdietan. Udako asteburu denetan jaialdi batean, gutxienez, eta aste bitartean ere bai. Txapelketetan ere aritu naiz.

**Beraz, herri kirolen udako jaialdiak sasoi onean daude.**

**K.G.:** Askotan emakumeak eskatzen dituzte eta sarritan emakumeak bakarrik. Gutxi gabiltza

“

**Karmele: "Udan inoiz baino jaialdi gehiago egin dut. Sarritan emakumeak bakarrik eskatzen dituzte"**

—

harri-jasotzen eta gabiltzanoki askotara joatea egokitzen zaigu.

**Zer txapelketetan aritu zarete eta zelan joan dira?**

**K.G.:** Euskadiko harri-jasotze txapelketan azpitxapeldun amaitu nuen. Ingudeagaz Bizkaiko txapelketa irabazi eta Euskadikoan azpitxapeldun geratu nintzen.

**J.G.:** Ni Bizkaiko txapelketan bigarren geratu nintzen Inhar Urruzunoren atzetik. Horrez gainera, Mallabiko txapelketa garrantzitsua izan da niretzat, nire herrian jokatzen zelako eta maila handia egoten delako. Hor ere bigarren geratu naiz. Txapelketako emaitze-kin gustura nago.

**Harri txikiekin ibiltzen zarete batez ere. Hauspoa harri handiak altxatzean baino inportanteagoa da?**

**K.G.:** Hauspoa eta teknika.



'Zelai', Mallabiko Goita auzoko Zelai baserrian. Hantxe dago Zelai izeneko landetxea ere. Lehior Elorriaga

**J.A.G.:** Hauspoa oso garrantzitsua da harri txikiekin zabiltzanean. Urteetan hamaika elkarrizketa egin dizkidate eta galdera bat egin didate askotan: Zein da jaso duzun harriarik pisutsuena? Inork ez du galdetzen: zenbat bider jaso duzu harri hori?  
**Harri txikietako lorpenak gutxietsi egiten dira?**  
**J.A.G.:** Beharbada, baina... Harri txikian onak izan direnek, Ostolazak eta Izetak, esaterako, beste edozeinek besteko oihartzuna izan dute. Mieltxo Saralegik, kilorik gehien jaso dituen gizonak —329 kilo—, ez nuke esango aipatu ditudan horiek edo nik neuk baino ospe handiagoa izan duenik. Iñaki Perurena da salbuespena. Oso karismatikoa izan da, arlo askotan asko balio duen gizona da, eta herri

“  
**'Zelai': "Txondor elkartean herri askotako jendea dugu; oinarri on bat eta aukera zabala dugu"**

“  
**Jon: "Aitaren izena beti agertzen da han eta hemen, baina nik ez dut horregatik presiorik sentitzen"**

kirola eta harri-jasotzea ikaragarri zabaldu du. Harri txikiekin ibili izan bazen ere ezaguna izango zen.  
**Karmele eta Jon, noiz eta zelakoa izan zen zuen lehenengo esperientzia plaza edo herri kiroletan?**  
**K.G.:** Ni eta nire lehengusina —neba eta aita aizkolariak ditu— beti ibili gara plazarik plaza eta inguruan beti izan ditugu ematen zizkieten garaikurrak eta antzerakoak. Behin aitari erakustaldi bat egiteko deitu zioten. Gutako batzuoï proposatu zigun eta lehengusina eta biok trontzan animatu ginen. 17 urte nituen. Gero ingudeagaz hasi nintzen. Herri kiroletan dabilenak, gehiago edo gutxiago, badaki txingei zelan heldu edo txokorrak batu. Denera moldatzen zara apur bat.  
**J.G.:** Nik hiru-lau urtegaz hartu nuen aizkora lehenengoz. Urteetan Ioritz lehengusuagaz entrenatu nintzen. 12 bat urtegaz aldatu nintzen harrietara.  
**J.A.G.:** Umetan tailerrera etorri eta "Aita, ipini egur bat" eskatzen zidan. Aizkora txiki kamuts bat ematen nion eta han aritzen zen, ordu bi jo eta jo, egurra moztu arte. Afizio handia izan du. Baina egur mundua nekoso da. Ekonomikoki eta egurraren prestaketa aldetik. Harria, berriz, atera, erabili, gorde eta hurrengo ekinaldirako prest dago berriro.  
**Jon, Gisasola abizena bizkarrean eramatea pisu astuneko harria da?**  
**J.G.:** Ez dut presiorik sentitzen, baina aitaren izena beti agertzen da. Ea aitarenak egiten ditudan edo aitaren inguruko kontuak. Broman bada ere, entzungo dut aita hau esan eta hura egin zuela.  
**Zelai, bakoitzak bere bidea egin behar du?**  
**J.A.G.:** Bai, bai. Edozelan ere, Jonek harri txikian punta-puntako harri-jasotzailea izateko dohainak ditu, gutxik dituzten horietakoak. Gerri ona, gorputz aproposa eta teknika ikasteko erraztasuna. Gero, niri falta izan zaidan gauza bat du: elikadura zaintzeko kapazidadea.  
**Urte dezente daramazu herri kirolak erakusten. Gustuko duzu irakastea?**  
**J.A.G.:** Bai. Txondor Herri Kirol Elkartea deitzen da gurea, eta 2004 inguruan sortu genuen. Herri kirolen inguruan gabiltzanon artean talde bat sortuz gero, ondorengoak etorri zitezkeela pentsatu genuen. Gaur egun 15 bat laguneko taldea dugu: Mallabikoez gainera, Ondarroa, Mendaro, Arratzu, Algorta Ermua, Eibar eta Bilbotik etortzen dira, besteak beste. Laster Zumarragako bat ere batuko zaigu. Oinarri on bat dugu eta abaniko zabala.  
**Aita zelako entrenatzailea da?**  
**J.A.G:** Neu hasiko naiz (barreak). Normalena etxekoei errespetu gutxiago izatea da, konfiantza dagoelako. Beharbada beste bati baino tonu gogorragoan esan ahalko diet zerbait. Aldi berean, euren eran-

tzuna ere antzerakoa izango da. Konfiantza alde bietara dagoelako.  
**J.G:** Txapelketetan eskertzen dut aita ondoan egotea. Pilotan esaten dute ez dela komeni botileroa aita izatea, baina gure kasuan kontra-koa da; alboan gura dugu. Asko ibilitakoa da eta ondo ezagutzen du harri-jasotzailearen lana. Gogor egin behar denean gogor egiten du, baina badaki noiz estutu eta noiz ez.  
**K.G:** Bai, ados nago. Txapelketetara beti goaz aitagaz. Konfiantza gehiago duzu edozer esateko. Hala ere, nirea desberdina da, ez dudalako Jonek beste txapelketarik. Badaki txapelketak dituela eta horietarako prestatzen ibiltzen da. Nirea afizioa da gehiago.  
**J.A.G.:** Baina entrenamenduak se-riotasun berdinagaz hartzen ditu

“  
**'Zelai': "Nik eman dezakedan aholkurik onena hauxe da: ez sekula etsi, segi entrenatzen"**

eta bestelako helburuak ditu. Esaterako, aurtén Euskadiko txapelketarako sailkatzea zuen helburu. Hori ez du edonork lortzen.  
**Zuk irabazitako txapelketak eta ezarritako markak zerrendatu behar bagenitu, egun osorako lana genuke. Denetatik zein txapelketa eta marka bereizten duzu, eta zergatik?**  
**J.A.G.:** Hasi nintzenean ez nuen pentsatzen gero egin nuena egitera helduko nintzenik, inondik inora ere. Nik eman dezakedan aholkurik onena hauxe da: ez sekula etsi. Entrenamendu saioa kaskar irten zaizula? Ez dio ardura, hurrengo hobea izango da. Ikasketen modukoa da. Medikuntza karrera ezin daiteke urte bian atera, gehiago

“  
**'Zelai': "Hirurok Mallabian aritzea gustatuko litzaidake, baina aitzakiaren baten harira behar luke"**

behar dira. Harri jasotzen ere berdina da. Nik Ostolazaren markak ikusi eta pentsatzen nuen: "Nondik etorri dira hauek". Harrituta gertzen nintzen. Baina entrenatu, segi eta segi saiatu, eta horrela lortzen dira markak. Aldamenean lagun on bat izatea ere funtsezkoa da. Pedro Salegi aurkitzea salbazioa izan zen niretzat. Beraz, galderari dago-kionez, nire lehenengo Euskadiko eta Bizkaiko txapelketak irabazi nituen uneak itzelak izan ziren.

Mallabian irabazi nuen Euskadiko txapelketa ere barruan gordeta dut. Norbere herrian lortutakoa berezia delako beti eta oraindino irauten duen marka bat jarri nuelako: 150 kiloko harri errektangularragaz 24 jasoaldi; 125eko zilindroagaz 33, 113ko kubikoagaz 23 eta 100 kiloko bolagaz 32. Hiru-na minutuko saioetan. 35 bat urte izango nituen orduan.  
**Jon, baduzu aitaren markaren bat inoiz hausteko esperantzarik?**  
**J.G.:** Kontua da aitaren marka asko 10 minutuko txandetan direla. 30 minutuko saioak oso gogorrak dira. Gainera, harri desberdin denetan ditu errekorrak.  
**J.A.G.:** Bere adinean ez nintzen bera beste, ezta hurrik eman ere.  
**Zelai, herri kiroletan apustuak ohi-koak dira, baina zu ez zara apustu zalea. Behin probatu eta ez errepi-katzea erabaki zenuen. Zergatik?**  
**J.A.G.:** 22 urte nituen eta oso txarto pasatu nuen. Etxean harria 201 bider jaso, plazara joan eta 185. Irabazi egin nuen, bestea gutxiago zelako. Baina berdín da. Ni, orduan, porrota porrotaren gainera pilatuta nengoan. Bolo-bolo zebilen: "Honek indarra bai, baina ez du balio, nerbiosoa da". Urtebete etxean ezkutuan entrena-tzen eman nuen. Topera nengoan, erraz irabazteko moduan, baina apustuaren egunean, Gernikako Aixerrota pilotalekura irten, den-dena beteta ikusi eta buf! Jendea dirua jokatuta, gainera! Txarto pasatu nuen. Aurreko egunetan ere ezin nuen lorik egin. Harrez-kero, besteei apustuan laguntzeko prest egon naiz, baina nik neuk ez dut gura. Orduan ez zegoen gaur besteko jaialdi kopururik. Hauek biak —Jon eta Karmele— hara eta hona dabil-tza eta txapelketetara doazenean, plazara eginda daude.  
**Zeintzuk dituzue hurrengo hitzorduak?**  
**J.G.:** Irailaren 29an Euskadiko pentatloi txapelketa izango dut Azpeitiko zezén plazan. 28 urteren ostean egingo da berriro. Harri jasotzen, harria mugitzen, aizko-ran, txingak eramaten eta korrika. Probatzea eta esperientzia pilatzea dut helburu. Azaroaren 10ean 21 urtez azpiko Euskadiko txapelketa izango dut. Iaz parte hartu nuen lehenengoz eta irabazi egin nuen.  
**Zelai, erretiratu zinenetik urte batzuk joan dira. Inoiz ikusiko zaituztegu hirurok plaza berean erakustaldi bat egiten?**  
**J.A.G.:** Egin genuen bat. Iazko urrian, Zarautzen, Izetaren ome-nezko ekitaldian. Karmelek saioa egin zuen eta Jon eta biok elkarre-gaz aritu ginen, txanda librean.  
**Eta Mallabiko jaietan?**  
**J.A.G.:** Gustatuko litzaidake, baina aitzakiaren baten bueltan izan beharko luke: norbaiten omenaldi-ren bat, ekimen solidarioren bat... Horrelako zerbait.

## Nobedadez beterik hasiko dute ikasturtea udal euskaltegiak, AEK-k eta Barnetegiak Zornotzan

AEK-k, esaterako, gurasoentzat ere eskainiko ditu eskolak, seme-alabek ikasten duten ikastetxean bertan

**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**

Hiru erakundeek euren nobedadeen berri eman dute asteon. Zornotzako Barnetegia Eskola Futura izeneko proiektu berri batean sartu da. Proiektu honen helburua Ipar Euskal Herrian eskolak emateko irakasle elebidunak (euskara eta frantsesa) trebatzea da, arlo horretan han dagoen beharrianari aurre egiteko. Ildo horretatik, Frantzia magisteritza ikasleak diren sei lagun etorri dira Zornotzako Barnetegira, eta euskara batua ikasten dabilta.

**AEKgaz, gurasoak eskolara**

Goizetan gurasoen lehenengo egin-beharretako bat seme-alabak ikastetxera eramatea da. Bidaia hori euskara ikasteko aprobetxatzea da Zornotzako AEKren eskaintza berria. Gurasoek ikastetxean bertan euskaraz ikasteko aukera izango dute, seme-alabak klasean dauden artean. Herriko edozein ikastetxetan sortu daitezke klaseak, beti ere gutxieneko talde bat eratzen bada.

**Etorkinen taldeak, jarraipena**

2014/15 ikasturtetik hona etorkinei euskara ikastaroak eskaintzen dizkie Zornotzako udal euskaltegiak. Baina taldeek, oro har, ikasturte bat irauten zuten, eta, gero, desageritu egiten ziren. Urtero berri batez hasi behar izaten zuten. Mugari hori apuratu dute aurten. Iazko ikasturtean talde bi izan zituzten eta horietako batek jarraitu egingo du. 12 ikasleko taldea da.

gertu egiten ziren. Urtero berri batez hasi behar izaten zuten. Mugari hori apuratu dute aurten. Iazko ikasturtean talde bi izan zituzten eta horietako batek jarraitu egingo du. 12 ikasleko taldea da.

“Guretzat pozgarria da, urtero erein dugunaren ondorioa delako. Zeretik hasiko den beste talderen bat edo gehiago sortzea ere gura genuke”, adierazi du udal euskaltegiko zuzendari Idoia Zuloagak.



Euskaltegiko Idoia Zuloaga, udaleko Luciano Martinez, Barnetegiko Maribi Zubiaga eta AEK-ko Igor Landaluze, martitzeneko prentsaurrekoan.



Eskola zaharreko irudi bat.

## Juan Orobiogoitia gogoratuko dute, bere jaiotzaren 300. urteurrenean

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Irailaren 13an 300 urte beteko dira Juan Orobiogoitia (1718-1794) Oromiñoko Orobiogoitia baserrian jaio zela, eta Gerediaga elkarteak, udalaren eta Juan Orobiogoitia ikastetxearen laguntzagaz, ekitaldiak antolatu ditu hura gogoratzeko. Berari zor zaio 1801ean Iurretan sortutako lehen letren eskola, "sasoirako aurrerakoia ziren irizpideekin" zabalduakoa. Gazterik joan zen Limara (Peru) eta merkataria zen ogibidez. Liman izango da lehen ekitaldia, irailaren 9an, eta Jaurlaritzak ere parte hartuko du. Irailaren 13rako, umeen jolasak eta berbaldia antolatu dituzte Iurretan.

## Iurretako kofradiek euren eguna ospatuko dute, domekan, Laixiarren

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Urteroko hitzordua dute herriko kofradiek, domekan, Laixiar Zelaian. 45. Kofradi Eguna ospatuko dute sei kofradiek —San Marko, Fauste, Goiuri, Santa Maña, Iurreta eta Orozketa— eta urteko kontuak azalduko dituzte. Kofradien Batzar Nagusia 12:00etako meza amaituta hasiko dute, eta, amaitzean, dantzarien eta bertsolarien txanda izango da. Bazkaria ere egingo dute, eta arratsaldean erromeria eta jolasak egingo dira.

**ZORNOTZA • JONE GUENETXEA**

Zornotzako herritar batzuek sinadura bilketa abiatu dute idi proben eta uso-tiroaren inguruko galdeketa eskatzeko *change.org* plataformaren bidez. Momentuz, 377 sinadura batu dituzte. Sustatzaileek diotenez, idi probetan abereek egin dezaketen esfortzua areagotzeko helburuagaz "legez kontrako substantziak edo drogak erabili" direla frogatu da sarritan. Gainera, diru publikoagaz norbanako batzuen dibertsiorako usakumeak hiltzeko inongo justifikaziorik ez da.

**Momentuz, ekimenaren bultzatzaileak ez dira Zornotzako Udalagaz hartu-emanen jarri**

## Idi proben inguruko galdeketa deitzeko sinadura bilketa abiatu dute

Abereei emandako tratu txarra barneratzen duten ospakizunei amaiera eman gura diete

goela azpimarratu dute. Momentuz, ekimenaren bultzatzaileak ez dira udalagaz hartu-emanen jarri, emago dituzten hurrengo pausoak erabaki arte.

**Idi probak Boroan**

Ekimenaren bultzatzaileak azaldu dutenez, Boroa auzoko San Pedro jaietan idi probak antolatzen dituzte Zornotzan. Montorako jaietan, aldiz, aurten ez da probarik izan. Bestalde, uso-tiroa egiten da Karmentan.



Idi proben artxibo irudia.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko irailaren 7a  
16. urtea - 732. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale

2015 **Bikam**  
Bikam  
Bikam

PEFC  
PEFC  
PEFC

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Berrizko Udalak kereila jarri du frankismoaren inpunitatea plazaratzeko

Maria Servini epaileari bidali diote kereila, Argentinara, "egia, justizia eta erraparazioa" lortzeko bidean

**BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
2016ko irailean, Maria Servini epaileak martxan jarritako auzibidea babestu zuen Berrizko Udalak. 1936an kolpistek egindako hilketen aurrean, frankismoaren kontrako kereila prestatzeari ekin zion Servini epaile argentinarrak "egia, justizia eta erreparazioa" lortzeko bidean.

Atzo, urte bi geroago, Berrizko Udalak kereila Argentinara bidali zuen Berriz 1936 elkarteak eta Frankismoaren krimenen elkarte-ko Josu Ibargutxik egindako lanari esker. "Hurrengo belaunaldi-egia argi eta garbi uzteko lanean gabil-tza, eta Berrizek eman duen pausoa oso garrantzitsua da", adierazi zuen Josu Ibargutxik atzoko prentsau-rrekoan. Orland Isoird alkateak, berriz, eskerrak eman zizkien

kereila jartzeko lanean ibili diren guztiei eta, bereziki, frankismoko biktimen familia eta elkarteei.

**1936an Felipe Urkijo, Jose Agirre eta Gregorio Urkijo fusilatu zituzten indar frankistek**

**Maite Arrizabalagak jakitera eman duenez, frankismoak 80 biktima inguru utzi zituen Berrizen**

Orain 81 urte indar frankistek hainbat berriztar hil zituzten. Beraien artean, momentu hartan Berrizko alkate zen Felipe Urtia-



Eneritz Gorrotxategi, Josu Ibargutxi, Orland Isoird, Maite Arrizabalaga eta Carmen Marco.

ga, eta Jose Agirre eta Gregorio Urkijo. Horrez gain, Maite Arrizabalaga Berriz 1936 elkarte-ko kideak jakitera eman zuenez, frankismoak 80 biktima utzi zituen herrian.

Azken urteetan, Berriz 1936 elkarte-ko kideak biktimen senitarteko-entestigantzak jasotzen ibili dira, kereilak bere bidea egin dezan. "Honi esker, biktimen su-

frimendua ez da galduta gelditu-ko eta ez ditugu inoiz ahaztuko", jarraitu du Arrizabalagak.

**Errepresioaren kontra borrokatu ziren emakumeak omenduko dituzte hilaren 11n**

**Irailaren 11, gomuta eguna**  
Azken urteetan lez, frankismoa sufritu zuten lagunak oroitu-ko dituzte Berrizen irailaren 11n. Horrez gain, aurtan, modu anoni-moan errepresioaren kontra borrokatu ziren eta euren ideia eta familiak defendatu zituzten emakumeak ere omenduko dituzte. Oroimen ekitaldia 18:00etan izan-go da Felipe Urtiaga enparantzan.

# Jaurlaritzak migratzaileen kolektibo ahulenentzat zerbitzua zabalduko du Berrizko Olakueta aterpetxean

Berrizko Udalak batzar bat egitea eskatu dio Eusko Jaurlaritzari, egitasmoa koordinatzeko asmoz

**BERRIZ • MARKEL ONAINDIA**  
Mediterraneotik ailegatu eta Europan gora joatea helburu duten migratzaile ugarik Euskal Herrian igarotzen dituzte egun batzuk, bizimodu hobe baten bila hasitako bidaian. Aldi baterako migratzaile horientzat babes zerbitzuak eskaintzen ditu Eusko Jaurlaritzak lau zentroan, baina laguntza hori indartu beharra dagoela igarri dute instituzioek eta gizarte eragileek. Horregatik, Berrizen beste zentro bat zabalduko dute laster, Olakueta aterpetxean (Elizaren aurrean). Ko-

lektibo ahulenentzat bideratuta egongo da: adin txikikoen kargu dauden emakumeentzat, bakarrik dauden emakumeentzat eta gaixorik dauden pertsonentzat.

Gainera, iraupena ere luzeagoa eduki ahalko dute Berrizen. Erkidegoko hiriburu-ent eta Irunen dauden aterpea emateko zentroetan,



**“Egonaldi luzeagoko baliabidea jarriko du abian Eusko Jaurlaritzak”**

gehienez hiru egunez egon ahal izaten dira bertan. Berrizen, oster, hamabost edo hoge egunez hartu ahalko dute babes. "Hainbat egoera antzematen ari dira eta, hori dela eta, batik bat kolektibo ahulenei arreta bereziagoa emateko beha-



Adin txikikoen kargu dauden emakumeak, bakarrik dauden emakumeak eta gaixorik dauden pertsonak hartuko dituzte Olakuetan.

rra aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak larrialdietako baliabideetan eskaintzen den egonaldia baino egonaldi luzeagoko baliabidea jarriko du abian laster", esan du Lidia Amilibia Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburuordeak.

Bizi duten egoerari aurre egiteko baliabide gehiago ere edukiko dituzte Berrizen, ostatuaz, elikaduraz eta arropaz aparte. Neurriokin gi-

zarte-bazterketa saihestu gura dute. Sortutako egoeraren aurrean, Berrizko Udalak batzar bat egitea eskatu dio Jaurlaritzari, zerbitzuaren ezaugarrietan sakontzeko eta "egon daitezkeen zalantzak argitzeko". Bestalde, udal arduradunek esan dute batzar hori lehenengo hartu-eman izango dela aurreragoko koordinazio batzarretarako.

**213 plaza, momentuz**  
Momentuz, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan 213 plaza eskaintzen

dituzte aldi baterako etorkinentzat. Etorkinen harrera bideratzeko, instituzioek mahai bat eratuta dute Gurutze Gorria, Harresiak Apurtuz, Caritas, CEAR eta SOS Racismo erakundeekin.

Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak baliabide gehiago jartzeko aldarria egin die instituzioei. Bilbon, esate baterako, hainbat auzotar etorkinei laguntzeko antolatuta dira, eta, adibidez, gosari solidarioa egin zuten joan zen domekan, egoera ikustarazteko.

**Berrizen, oster, hamabost edo hoge egunez hartu ahalko dute babes**

# Durango hegoaldeko saihsbidearen hirugarren fasea martxan ipini dute

Bederatzi hileko exekuzio epea edukiko du obrak, eta 682.500 euro kostatuko da



Hegoalde etorbidetik aurrera, Aliendaldeko industrialderantz joango da saihsbidea.

## DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Gasteiztik datorren errepidea eta Elorriorantza doana lotuko dituen saihsbidearen proiektuak beste pauso bat eman du. Abuztuaren 20ko gobernu batzordean hirugarren fasea adjudikatu zuten, eta dagoeneko hasi dira obrak. Ona enpresaren atzealderaino joango da zati hori, eta laugarren fase bat faltako litzateke saihsbidea amaitzeko, Aliendalderainokoa. Gai-

### Ona enpresaren atzealderaino joango da zati hori, eta laugarren fase bat faltako litzateke

maz enpresak egingo ditu lanak, bederatzi hileko exekuzio epean, 682.500 euroko aurrekontuagaz.

### Lurra, parkingerrako

Obrako lurra Faustebekoako udal lurzoru batean ipintzen ari dira, bertan aparkaleku bat sortzeko aukera aztertzen dabilelako udala, disuasiorako parkingean plan baten barruan.

Gainera, etorkizunean San Faustoko sarreran biribilgune bat erai-kiko dute, Faustebekoakoek eta Landakokoek sarbide hobea izateko, Ertzain-etxe pareko biribilgune-raino joan beharra eduki barik.

## Auzotarren kexen ostean, udalak dio 184 uso harrapatu dituela aurten

### DURANGO • M.O.

Durango Alde Zaharra (DAZ) auzo elkarteak zenbait herri-tarren kexak prentsara bideratu ditu, esanez Andra Mariko elizpea usoen kakaz zikinduta egon dela azken egunotan. "Zertaz harrotzen da Durango?", galdetzen du DAZek oharrean. Andra Mariko argazki batzuk helarazi ditu egoera salatzen. "Pertsonak ezin dira jarri ere egin elizpean".

Udalak dio 184 uso harrapatu dituela aurten, ekainaren 16an eta abuztuaren 11n egindako saioetan. Andra Marian habiak aurkitu dituztela informatu du,

### Andra Marian habiak aurkitu dituztela informatu du udalak, eta asteen kendu dituztela

eta asteen kendu dituztela. Gainera, bertako bankuak hamabostean behin garbitzen direla ere gogoratu du.

## San Inazio auzunea aparkatzeko TAO sistematik kanpo utziko dute

Gobernu taldeak proposatutako zazpi aldaketa jasoko ditu TAO sistema arautzen duen ordenantzak; arratsaldeko ordutegia ordu erdi atzeratuko dute, 16:00etatik 20:00etara

### DURANGO • M.O.

Durango gobernu taldeak proposatutako zazpi aldaketa jasoko ditu TAO sistema arautzen duen ordenantzak. Besteak beste, San Inazio auzoa ez da TAO eremua izango, Landakoko anbulatorioan gehienez 90 minutuz egon ahalko da, eta arratsaldeko ordutegia ordu erdi atzeratuko dute, 16:00etatik

20:00etara. Gobernuak dio "mugikortasuna hobetzea eta merkataritzari laguntzea" gura dutela

### Gobernuak dio "mugikortasuna hobetzea eta merkataritza laguntzea" gura dutela

neurriekin. Oposizioa, oster, kritikotik agertu da. EH Bilduk salatu du San Inaziokoak "bigarren mailako herritar" bihurtuko direla, baina gobernuak dio disuasiorako parkingak ezarriko dituela auzoetako arazoa konpontzeko.

Herriaren Eskubideak auzotarren "ekarpen guztiak atzera bota" izana kritikatu du.



San Inazio auzoan libre aparkatu ahalko da ordenantzaren aldaketak indarrean sartzean.



**Iurreta**  
Eleizateko Udala

IURRETA UDALERRIKO  
ENPRESA-PROIEKTUEN  
X. LEHIAKETARAKO  
DEIALDIA

Helburua: Iurretako herrigunean enpresa berriak sortzeko ekimenak sustatzea eta bidea erraztea norberaren enpresa edo denda sortuz, lanean hastea erabaki dutenei.

Oinarriak: Lehiaketaren oinarriak Iurretako udaletxean edo Udalaren web gunean eskura daitezke.

Proiektuak aurkezteko:  
2018ko ekainaren 1etik urriaren  
31ra bitartean, H.A.Z.-en  
(Bidebarrieta 5).

Saria: 6.000 €

Tfnoa: 94 620 12 00  
www.iurreta.eus



# Sukalki Egunagaz eta Kultura arteko jaiagaz amaiera emango diete aurtengo Ferixa Nausikoei

Elorriarrak jaietako azken txanpan sartuta dauden arren, hainbat ekintzez gozatzeko aukera izango dute asteburuan

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
Ferixa Nausikoetako bigarren asteburuan murgilduko dira gaur elorriarrak. Jaietako azken txanpa izango den arren, hainbat ekintza izango dituzte. Bihar, esaterako, Sukalki Eguna eta karrozen jaitsiera izango dituzte. Domekan Kultura arteko jaia egongo da, beste hainbat ekintzen artean. Horrez gain, aste-buru osoan zehar hainbat kontzertu egongo dira.  
Kainaberak antolatzen duen jaialdiari dagokionez, Kanpokale eta Arriola kaleen artean egingo da.

Bertan, Euskal Herriko jakiak probatzeko aukeraz gain, Boliviako, Kolonbiako, Maliko, Nikaraguako, Marokoko, Mexikoko, Portugalgo, Senegalgo, Uzbekistango eta Venezuelako janariak dastatzeko ere egongo da.

*Hamar herrialdetako jakiez gozatzeko aukera egongo da domekako Kultura arteko jaian*



Sukalki Egunean herriko hainbat kuadrilla batzen dira.



Kanpokale eta Arriola artean egingo dute Kultura arteko jaia.

## 107.000 eurogaz, gazteen enplegua sustatuko dute

Gazteen enpresen lehiaketa urriaren 1era arte egongo da martxan, eta 1.000 euroko saria irabaziko du onenak



EAJko eta EH Bilduko ordezkariak parte hartu zuten uztailaren egindako prentsaurrekoan.

**DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA**  
Aldundiak eta eskualdeko udalek sustatzen duten Gaztedi Durangaldea planaren barruan, enpresak sortzeko ideia lehiaketa egingo dute. Gainera, enpresetan esperientzia hartzeko bekak ere eskainiko dizkiete 18 eta 29 urte arteko gazteei. Guztira, 107.000

Ideien lehiaketa urriaren 1era arte egongo da zabalik. Ideiarik onena duenari 1.000 euroko saria emango diote, eta beste lauri, 500 eurokoa. Bekei dagokienez, bost hilabeteko lan esperientzia izango da, %75eko lanaldian eta 460 euro kobratuta. Ikasi duten arloan esperientziarik ez duten gazteek izango dute parte hartzeko aukera. Informazio bila [gaztedidurangaldea.eus](http://gaztedidurangaldea.eus) atarira jo dezakete.  
EH Bilduk "balorazio ezkorra" egin du orain arteko ibilbideaz, eta esan du "azken aukera" eman go diola egitasmoari. "Amankomunazgoa kudeaketatik kanpo utzi zen, eta Durangoko Udalari eman zitzaion koordinazioaren ardura, interes partidistengatik".

**Enpresetan esperientzia hartzeko bekak ere eskainiko dizkiete 18 eta 29 urte arteko gazteei**

euroko aurrekontua du planak; 64.000 Aldundiak ipiniko ditu, eta gainerakoa, udalek.



**guk gure etorkizuna eraikitzen dugu**  
Markina-Xemein (Bizkaia) - 94 616 90 02  
info@leartik.eus - www.leartik.eus



**Erlantz Goikoetxea Garcia**  
(Bermeo 1995)

Lea Artibai Ikastetxeko ikaslea izan da Erlantz Goikoetxea Garcia eta lanbide heziketako Web Aplikazioen Garapena goi mailako zikloa ikasi ondoren Deloitte enpresan dago lanean.

**Erdi mailako ziklo bat egin ondoren goi mailako ziklo bat egin duzu:**  
Bai, informatika zalea naizenez hamasei urteekin erdi maila egitea aukeratu nuen informatikako oinarri bat edukitzeko. Erdi mailako zikloa erraz egin nuen, aurretik nire kabuz ibilia nintzelako ordenagailuekin, goi mailako zikloa berriz apur bat zailagoa da, baina programatzea gustukoa dudanez gogo gehiagoz hasi nuen. Gustuko dudana atalak oso erraz ikasi ditut eta gehiago sakontzeak poztu egiten nau.

**Web aplikazioen garapena zikloa zelakoa da?**  
Web aplikazio garapenaren metodologia praktikan bideratuta dago, hobeago nire ustez informatikako atalak lantzeko. Erronkatara zuzendutako zikloa, ikasle talde polit batekin, oso arin eta ondo pasatu zitzaizkidan. Erronkatarik askoz be gehiago ikasi dut, teoria moduan baino eta ingurune hobeagoan nire taldekideekin.  
**Zeintzuk dira zuretzat lanbide heziketa ikastearen onurak?**  
Lanbide heziketaren onurak, Ingurune erreal batean gehiago

ikasi eta prepazio hobeagoa hartzen duzula. Baita enpresarekin harremanak lanpostu bat erraztu daiteke.  
**Lantokiko praktikak egin eta bukatuta, zein enpresetan eta zer lan burutzen egon zara?**  
Deloitte enpresan, Bilbon egin ditut praktikak, Java-ko programatzailea moduan lanean, Java-ko atal gehiago ezagutzen eta ikasten. Praktikak bukatu ondoren, urte bateko kontratua eskaini didate. Niretzako Java ikasteko eta lanpostu bat bilatzeko aukera oso on bat izan da.

# Muruetako lursailen birkalifikazioak kalte egingo dio tokiko ekonomiari, EH Bilduren ustez

EH Bilduren ustez, merkataritza-guneak eraikitzea errazteko helburuagaz onartu da birkalifikazioa. Navarro alkateak dioenez herritarrek zein elkarteek parte hartu dute plana eratzeko prozesuan eta EH Bilduri "obsesioa" izatea egotzi dio



**ABADIÑO • A.M.**

EH Bilduk ohar baten bidez adierazitakoaren arabera, merkataritza-gune handiak eraikitzea du helburu Muruetako lurren birkalifikazioak, eta horrek eragin nabarmena izango du Abadiñon. "Herriko komertzio txikiari eta tokiko ekonomiari egingo dion kaltea aurreikusiz eta udal taldeak erabakia hartzeko erabilitako prozedura ikusirik, aurka bozkatu

genuen". Barakaldon gertaturikoa adibide moduan jarrita, kontuan hartu beharreko faktoreak ere aipatu ditu alderdiak: "Abadiñon hainbat denda txikik itxi dute az-

ken urteetan, eta honek ez du lagunduko; INEko datuen arabera, sektoreko hitzarmen kolektiboak prekarietatea areagotuko du...".

**EH Bilduren berbetan, Barakaldon emandako bilakaera eragin dezake birkalifikazioak Abadiñon**

**Navarro: "Beste behin ere, argi geratu da EH Bilduk irabazita duela ezer ez egitearen fama"**

**Alkatea, haserre**

Jose Luis Navarro alkateak beste ohar baten bidez erantzun dio alderdi abertzaleari. Navarroren esanetan, herritarrek zein elkarteek parte hartu dute plana eratzeko prozesuan, eta EH Bilduri "obsesioa" izatea egotzi dio: "Beste behin ere, argi geratu da EH Bilduk irabazita duela ezer ez egitearen fama. Bitxia da, gainera, enpresa batzuk ezartzeagaz duten obsesioa".



Zapatu Blai ekimena.

**'Zapatu Blai'-n izena emateko epea astelehenean zabalduko da**

**ZALDIBAR • A.M.**

Haur eta Lehen Hezkuntzako ume eta gaztetxoek euskara erabiltzea ziurtatzeko helburuagaz, *Zapatu Blai* ekimena jarri zen martxan orain urte batzuk. Aurtengo lehenbiziko saioa urriaren 16an izango da. Irailaren 10etik 17ra bitartean egongo da bertan apuntatzeko aukera. Hamabostean behin, zapatuetan, 16:00etatik 19:00etara bitartean biltzen dira gaztetxoak, umeekin lanean esperientzia handia duten gazte euskaldunekin.

Bestalde, jadanik zabalik dago 2017/2018 ikasturtean euskaraz ikasi zutenek diru-laguntzak eskatzeko epea. Urriaren 16an amaitzen da epe hori.

**Ehiza paseen zozketak egingo dituzte Mugarra eta San Iurgi elkarteek**

**MAÑARIA • J.D.**

Mugarra Saibigain-Iturriotz pase lerroko postuak zozkatuko dituzte, eta irailaren 13a da irailko eta urriko paseen eskaerak aurkezteko azken eguna. Zozketa orokorra hurrengo egunean egingo dute, 20:30ean, Mañariko Udaleko lokal sozialean. Bazkideen zozketa, berriz, irailaren 18an izango da, 19:00etan. Azaroko eta abenduko hileko paseetarako baimen eskaera irailaren 27an amaituko da eta zozketa orokorra hurrengo egunean egingo dute, 20:30ean.

Izurtzako San Iurgi elkartearen kasuan, irail eta urriko zozketarako orriak irailaren 10a baino lehen aurkeztu behar dira. Irailaren 14a da zozketa eguna. Urriko eta azaroko orriak irailaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira eta zozketa eguna irailaren 28a da. Eskaera orriak elkarteak udaletxeko sarreran duen buzoian eta Bitainoko auzoko buzoian utzi daitezke. Eskaera orriak Herriko tabernan, Antonio Txiki okindegian eta gasolindegian daude.

## Erosketak herrian egitea bultzatzeko, 5 euroko 1.000 bonu banatuko ditu Abadiñoko Udalak urrira arte

Urriaren 31ra arte iraungo du kanpainak, eta Abadiñoko 22 dendak parte hartuko dute bertan; aste honetan abiatu da kanpaina

**ABADIÑO • A.M.**

Bost euroko 1.000 bonu banatuko ditu Abadiñoko Udalak erosketak herrian bertan egitea sustatzeko; bost euroko bonuak 15 eurotik gorako erosketetan erabili ahal izango dira. Guztira, 22 dendak egin dute bat kanpainagaz, eta urriaren 31ra arte iraungo du. Erosketa berean ezingo da bonu bat baino gehiago erabili.

Hirugarren urtez jarraian antolatu du Merkataritza, Turismo eta Landa Garapen arloak kanpaina hau, Abadiñoko Merkatarikartearen laguntzagaz. Iñaki Rekalde Merkataritza, Turismo eta Landa Garapen arloko zinegotziaren berbetan, abadiñarrak bertako komertzioetan erosteak dituen abantaila eta onurei buruz kontzientziaztea da kanpainaren helburua.



Iñaki Rekalde zinegotzia eta Lorea Iriondo merkataria, aurkezpenean.

# Irabazi asteburu pasa zoragarria edo tablet bat!

**Bidali zure argazkiak  
irailaren 15era arte**

## UDA KO 4. ARGAZKI LEHIAKETA

**anboto**   
komunikabideak



Durangaldeko 2017ko  
argazkia

Durangaldetik kanpoko  
2017ko argazkia



## 2 KATEGORIA SARITUKO DIRA

- ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

ANTOLATZAILEA **anboto**   
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK   
Anetbetan? Ezazu lagun!

 **EROSKI**  
Abadiño Zurekin

 **elaia**  
ir

Informazio gehiago [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean

**Irailaren 9an emango diote amaiera aurtengo igerileku denboraldiari**

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
Ekain amaieran zabaldu zuten igerileku denboraldiari domeka honetan emango diote amaiera, irailak 9. Euriteekin hasi bazen ere, denboraldia "oso ona" izan dela jakitera eman du David Cobos alkateak, eta iaz baino bisitari gehiago izan dituztela adierazi du. "Jende asko ibili da eta oso pozik gaude aurten igerilekuak izan duen bisitari kopuruagaz", esan du alkateak. Gainera, aurten "arazo larririk" ez dela egon gaineratu du.

**Tabernagaz, pozik**  
Bestalde, alkateak azaldu du atxondarrak eta inguruetako herritarrek "oso pozik" gelditu direla Anbotope Agrotxiringoagaz.

**Igor Elortza eta Maialen Lujanbiogaz bertso-poteoa egingo dute Otxandion**

**OTXANDIO • M.O.**  
Ikasturteari hasiera emateko, jai giroko ekimena prestatu dute Otxandioko bertso eskolakoe, udalaren laguntzaz. Bertso-poteoa egingo dute hilaren 14an, 20:00etan hasita, Igor Elortza eta Maialen Lujanbiogaz batera.

Bestalde, irailaren 15ean organo kontzertua egongo da, 20:00etan, elizan. 19:00etan, berak egindako organoei buruzko azalpenak emango ditu Sergio del Campo otxandiarrek.

**Garaitarrek Santa Katalinako jaia ospatuko dute irailaren 16an**

**GARAI • MARKEL ONAINDIA**  
Santa Katalinako ermita garaitarren elkargune izango da hurrengo domekan, hilaren 16an. Tradizioz kurtutze santua omentzeko ospatu izan da jaia, eta eguna 14a izan arren, batez ere domekan izango dira ekitaldiak.

Zapatu iluntzean txopoa igoko dute jaia iragartzeko. Domekan herriko meza egongo da 10:30ean, ermitan, eta gero dantza saioa eskainiko dute. Luntx bategaz amaituko dute jaia.

**Fosecoko langileek greba mugagabea hasi dute Izurtzako lantegiaren itxieraren aurrean**

Asteon Vesuviuseko arduradunek aurkeztu duten lan espedienteak 24 langileren kaleratzea berretsi du

**IZURTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
Izurtzako Foseco enpresa talde multinazional baten barruan dago, Vesuvius izenekoa. Uztail hasieran Fosecoko langileek greba mugagabeari ekingo ziotela jakitera eman zuten, Vesuvius taldeak enpresa ixtea gura baitzuen. 42 langileren kaleratzea aurreikusten zuen.

**Vesuviusen planak 16 pertsonen birkolokazioa eta 2 erretiro aurreratu ere batzen ditu**



Martitzenaz geroztik greba mugagabea daude Izurtzan.

Asteon, Vesuviuseko arduradunek lan espedienteak aurkeztu dute, eta horretan, 24 langileren kaleratzea eta Izurtzako lantegiaren itxiera berretsi dute.

ELA sindikatuko kideek jakitera eman zuten, Vesuvius taldekoek aurkeztutako planak 16 pertsonentzako birkolokazioa, 2 erretiro aurreratu eta 24 langileren kaleratzea jasotzen ditu. "Erregulazio txostenak ez du inolako zentzurik. Oso ondo dabilen lantokia da eta zorakeria bat iruditzen zaigu egiten dabiltzana", adierazi du ELAk. LABeko kideek, berriz, "inolako kaleratze traumatikorik" ez dutela onartuko adierazi dute.

Hori horrela, Fosecoko langile batzordeak deituta (ELA, LAB eta independenteak), martitzenaz geroztik greba mugagabea daude Izurtzako lantokian.



Mendi Gain dantza taldea.

**Jesus Susilla artistak egindako oroigarria jasoko dute dantzariak urteurren ekitaldian**

**IZURTZA • J.D.**  
Mendi Gain dantza taldeak 50. urteurrena ospatuko du zapa-tuan. Jesus Susilla artistak egin eta sinatutako margolana izango da protagonistetako bat. 70 aleko edizio mugatua oroigarri moduan jasoko dute dantza taldeko guztiek.

Ospakizuna 11:00etan hasiko da. Erdoitzako baselizara joan eta Erdoitzako Amari eskainiko diote bandera. Mezaren ostean, ohorezko arkua egingo diote Izurtzako herriari. Dantzarien familia argazkia atera eta ekitaldi txiki bat egin ostean, herrigunera jaitsiko dira. 13:00 inguruan dantza saioa eskaini, aipatutako oroigarriak banatu eta denek elkarrekin frontoian bazkalduko dute.

**Ur zikinak bideratzeko, saneamendu hoditeria sartuko dute Goitondoko industrialde pribatu bietan**

Urbanizazio lanak ere egingo dituzte; amaitzean, industrialde publiko bihurtuko dira eta udalak kudeatuko ditu

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**  
Goitondon lau industrialde daude: bi publikoak eta beste bi pribatuak. Pribatuekin akordio batera heldu da udala. Industrialde bietako —Goitondo Erdikoa eta Goitondo Goikoa— enpresen artean urbanizazio eta saneamendu lanak egingo dituzte eta hori egiten dutenean udalak hartuko du hango kudeaketa. Hau da, publiko bihurtuko dira.

Proiektua eginda dago, eta lanak esleituta. Irailean hasiko dituzte eta bi-hiru hilabete iraungo dutela aurreikusten da.

**URA agentzia**  
Saneamendu lanen barruan, hodi-biltzaileak sartuko dituzte ur zikinak bideratzeko. URA agentziak hodi horiek Ermuako hodiekin lotuko dituen zatiko lanak egingo

ditu datorren urtean eta, modu horretara, ur zikinak araztegia bideratuko dituzte. Orain, errekan amaitu ohi dute ur zikinek, Igor

**Lanak esleituta daude eta irailean hasiko dituzte. Bi-hiru hilabete iraupena izango dute**

**URAk etorkizunean egingo duen hodi biltzaileari lotuko zaio azpiegitura berria**

Agirre Mallabiko alkatearen esanetan. "Lan guztien alderik garrantzitsuen horixe da", adierazi du Agirre alkateak.



Mallabiko Goitondo Goikoa industrialdea.

## Hareek denporak!

# Mendiolako auzo eskolako azken ikasleak

Egunotan euren ikastetxeetarako bidea hartzen ari dira berriro ikasleak, liburuz betetako motxilak soinean. Argazkian ageri diren ikasleek ere egin zituzten eskolarako joan-etorriak. Badute bereizgarri bat, gainera: Mendiola auzoko eskolako azken ikasleak izan ziren. 1988an eskola zarratu zenean, Jaione Urien, Ibai Urien, Igor Garate, Aritz Areizaga, Unai Macias, Gotzone Ania eta Asier Zabala

ziren ikasleak, eta Mila Berrioteortua irakaslea. 1998ko urtemuga ekitaldikoa da argazkia.

Datuok auzo elkarteak argitaratutako *Mendiolako eskolak 75 urte* liburuari esker dakizkigu. 1923-1924 ikasturtean zabaldu zen eskola, Julene Azpeitia eta Feliziana Astorkia maistra zirela. Liburuan kontatzen denez, klaseak euskaraz ematen zituzten, liburuak gaztelaniaz egon arren. **M.O.**



Argazkia: 'Mendiolako eskolak 75 urte' liburua.

## Sei hankako mahaia

Goiztidi  
Díaz Basterra  
EAJ



### Bukaeraren hasiera!

Urte osoan beraien zain egon eta gero, heldu diren modu berean joan jakuz oporrak. Eta honela, bukaera guztien atzetik datorren hasiera dogu aurrean, iraila baita hasieren hilabetea. Eskoletako ikasturtea hasten da, batzuek horrenbeste desiratzen egon diren futbola hasten da, kirola buru-belarri egiteko egitasmoa pizten da eta, nola ez, udako gehiegikeria gastronomikoak garbitzeko dietak hasten dira.

Aurten, jadanik martxan jarri den ikasturte politikoa legealdiko azkena izango da eta, beraz, bukaera bat ekarriko duen hasiera baten aurrean gagoz. Ziur nago gorabehera asko egongo direla, baina gure onena emongo dogu Durangorentzat hoberena dena lortzeko.

Beraz, lanerako gogoz etorrita denbora gutxi edukiko dogu opor osteko sindromea sentitzeko. Herriko igerilekuetan igarotako egunek, bertako tabernan hartutako kafeek eta jendearekin edukitako solasaldiek uda garaia baino luzeagoa den neguko errutinei aurre egiteko indarra emon deustie. Udako igerilekuetan sortzen den giroaren eta egun horiek ematen dabien deskantsoaren falta igarriko dot. Baina bizitza zikloz beteta dago eta etorriko dira osterari desioa udako egun zoragarri horiek.

Bitartean, erronka berriak martxan jarriko doguz eta etorkizunean errutinatik at garmatzaten ihesbideak antolatuko doguz. Honela, eguneroko lanari aurre egiteak lepoan jartzen deuskun zama gutxiagotuko dogu eta luze egin ahal jakun ikasturtea laburtuko dogu. Gogoz eutsiko deusagu legealdiaren helmugako zuzenari. Jakin eta egin!

## Durangaldea asteen

### 7 kartelen artean aukeratu ahal dute herritarrek San Fausto jaiak iragartzeko

**Durango I** 32 kartel aurkeztu dituzte San Fausto jaiak iragartzeko lehiaketara, eta epaimahaiak horietatik 7 finalista aukeratu ditu. Herritarrek irailaren 12ra arte eman ahal dute euren gustukoenaren aldeko botoa, udalaren webgunean. Irailaren 14an emango dute irabazlearen berri. Jaiak urriaren 11tik 21era bitartean ospatuko dira. Webgunetik aparte, Landako kiroldegian ere ikusgai daude kartelak.

### Iurretako herrigunean orduko 30 kilometrora bajatu dute abiadura muga

**Iurreta I** Herrigunean orduko 30 kilometrora bajatu dute abiadura muga. Trafikoa lasaitu eta gidatzeko ohiturak aldatu gura dituzte horrela. Era berean, airearen kutsadura eta zarata gutxitu gura dituzte. Neurri horregaz bide segurtasuna ere hobetuko da, udal arduradunek azaldu dutenez. Bixente Kapanaga eta Askondoko zebra-bideetan arekak ipini dituzte abiadura murrizteko.

### Maiztegi eskolako atzealdeko leihoak aldatu dituzte uda aprobetxatuta

**Iurreta I** Maiztegi herri eskolan obrak egin dituzte udako oporraldia aprobetxatuta. Hain zuzen, atzealdeko leihoak aldatu dituzte. Eraikineko berokuntza-gastua murriztu eta energia-eraginkortasuna hobetze aldera egin dituzte hobekuntza lanok. Oraingoan metal-arotzeria erabili dute. Guztira, 16 leiho aldatu dituzte. Lanotarako, 49.100 euro erabili dituzte, eta Eusko Jaurlaritzak 29.000 eurogaz lagundu du.



### Euskaraz berba egiteko Mintzodromoa egingo dute gaur Elorrioko jaietan

**Elorrio I** Herrian Euskaraldiaren dinamika lantzen dabilen taldeak bultzatuta, euskaraz berba egiteko Mintzodromoa egingo dute gaur arratsaldean. 19:00etan ipini dute hitzordua, Urarka kalean, Izara dendaren ondoan. "Edonor joan daiteke bertara: euskara ikasten dabiltzanak eta praktikatu gura dutenak, besteei bide horretan lagundu gura dietenak...", esan dute antolatzaileek. Talde txikitik batuta egingo dituzte solasaldiak. "Egunotan herrian jai giroa nagusi denez, beste herritarren iritzia modu informalean ezagutzeko gunetxo bat sortu gura dugu Mintzodromoagaz, eta, bide batez, euskaraz eta Euskaraldiaz berba egin", azaldu dute.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9.- IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

## DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK

Whatsapp bidez  
Bidali 'ALTA' 688 635 041  
zenbakira whatsapp  
bidezko mezua bidalita

Telegram bidez  
Bilatzailearen bidez  
'ANBOTO' kontuan  
sartu eta egin klik  
'HASI' botoian

@anbotokomunikabideak  
@anboto  
@anboto  
Anboto  
Komunikabideak


UDAL  
EUSKALTEGIA  
DURANGO  
Ustea - Ayuntamiento



2018-19 IKASTURTEA

MATRIKULA ZABALIK  
irailaren 3tik 21era

Telef.: 946030040  
email: euskaltegia@durangoeuskaltegia.net




Horra, Fermintxo Bihurritxo,  
zuretzat pila bat kroketa goxo.  
Utzi behingoz jolasak txakurtxo,  
Eta zatoz galdu gabe, kontxo



## LABIRINTOA

Lagundu txakurrari  
bidea aurkitzen.



Sartu  
[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
web atarian eta  
denbora-pasa hauen erantzunekin  
batera beste hainbat jolas aurkituko  
dituzu.

## MINAAAA!!!!

¡, ene! Neskato pinpirin hau Xune da, eta bakarren  
atek hozka egin dio besoa. Ikusi al duzu zer-nolako  
ozka?! Aurreko hortz guztien marka utzi dio-eta!  
or demontre izan ote da, Elaia? Oier?  
Lagundu irakasleari nor izan den asmatzen,  
hitz egin beharko dizkio-eta.




IZARO



Horra  
hemen hozkaren  
marka, lupaz  
handituta. Horiek  
bai hortz zorrotzak!

Nik ez dakit zer  
gertatu den, meriendarako  
marmeladaren bila joan naiz.  
Ummm! Bai goxoa!

Xune nire  
hiper laguna  
da. Nik muxuak  
ematen dizkiot,  
beti, beti  
eta beti.



IRATI

Ui, ui, ui, nik kasu egitea  
besterik ez nuen nahi...

Dik dola  
egingo gdion ba  
hodsza! Edzinedzkoa  
da: burdin arltean  
presxo didud horzz  
guzzdiak! \*



UNAI

\* Nik nola egingo nion ba hozka!  
Ezinezkoa da: burdin artean  
preso ditut hortz guztiak!

Besoan oso  
txitxi gutxi dago,  
nik masailan egingo  
niokeen... Edo  
ipurdian!



GAIZKA

Ez dago  
eskubiderik,  
beti niri botaten  
didazute  
errua!



OIER

Seguru ez  
dela banpiroren  
bat izan?  
Maite ditut  
banpiroak.



GORKA

grrr, ZZZZZZZZZ,  
grrrrrrroa, ZZZZZZZZ grr  
rrrr, aaa zzzzzzzzzz....



AINARA




EIDER



[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)


## Itzala

Zure ustez, zer egin behar da Herri Urratsera joateko? Ba, hasteko eta behin, ondo gosaldu. Bilatu itzal zuzena ondoko mokadu oparo honi.



## BiKiak

Zazpi irudi hauek berdinak dirudite, baina ez dira berdinak. Aurki itzazu elkarren kopia diren bi irudiak.



## Txori Festa

Zer egiten dute txori hauek denek teilatuan geldirik?  
Oso galdera ona da, baina hurrengo baterako utziko dugu. Momentuz, bila ezazu parerik ez duen txoria. Hirukote bat ere badago, zeintzuk osatzen dute?





## Argazki erraldoia

GURE ESKU DAGO

OIZ :: Irailak 9

### Espainiako Itzuliaren harira, argazki erraldoia aterako du GEDk.

Erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimenduak ekitaldia egingo du domekan Oizko San Kristobalen, eta, ostean, argazki erraldoi bat ateratzeko asmoa du. Sare sozialen bidez, 12:00etan ermita ondoan elkartzeko deialdia egin du Gure Esku Dagok.

### Irailaren 7an

#### ELORRIO jaiak

‘Ferixa Nausiko jaiak’.

Ibilaldia Elorriotik,

09:00etan, plazan; **hildako**

**jubilatuaren omenezko**

**meza**, 11:30ean, Sortzez

Garbiaren basilikan;

**Kopaua Elorrioko**

**jubilatuentzat**, 11:30ean,

Aldatsekuan; **haur**

**parkeak**, 16:00-20:00

bitartean; **areto-futbol**

**partiduak**, 18:00etan,

kiroldegian; **lagunarteko**

**triangeluarra**, 18:15ean,

Elizalden; **Arantza eta**

**Pantxoren kontzertua**,

18:30ean, Aldatsekuan;

**Street dance tailerra**,

18:30ean, txosnagunean;

**lagunarteko partidua**,

19:00etan, errugbi

zelaian; **buruhandiak**,

19:00etan, Urarkan; ‘**Babo**

**Royal**’, **Ganso & Claren**

**ikuskizuna**, 19:30ean,

Urarkan; **Chicas de La**

**Habana**, 21:00etan,

Urarkan; **LIV. Idi proba**

**txapelketa**, 21:00etan,

probalekuan; **suzko**

**zezena**, 22:15ean, plazan;

**Zea Mays eta Koban**

**taldeen kontzertua**,

23:00, plazan; **Little**

**Martin Selektah**,

00:30ean gaztetxean.

### Irailaren 8an

#### ABADIÑO irteera

Astxikiko gazteluaren

aztarnak bisitatzeko

bisita gidatua Iñaki

Garcia Camino

doktoreagaz, deitu 94

681 41 55 telefonora izena

emateko.



#### ELORRIO jaiak

‘Ferixa Nausiko

jaiak’. **Sukalki eguna**,

08:00etan, Aldatsekuan;

**3R azoka**, goizean zehar,

Berrio-Otxoan; **haur**

**parkeak eta txu-txu**

**trena**, 12:00-14:00 eta

17:00-20:00 bitartean;

**gazteok fanfarrea**,

17:15ean, kalejiran;

**txokolatada**, 18:00etan,

plazan, **Dj Urtza (disco**

**larima)**, 18:30ean,

plazan; **Bentazaharreko**

**mutiko alaiak**, 19:00etan,

kalejiran;

**LIV. Idi proba txapelketa**,

21:00etan, probalekuan;

**Aliron berbena**,

**(70eko 80ko 90eko**

**hamarkadetako musika)**,

20:30ean, Urarkan; ‘**Coro**

**Rossini: Zarzuela On**

**Air**’, 22:15ean, plazan;

**Stronger Together**

**eta N20GU taldeen**

**kontzertua**, 23:30ean

gaztetxean; **Dj Jo Ta Txo**,

23:00etan, txosnagunean;

**Dj Naiara & Dj Jokin**

**Alonso**, 23:30ean, plazan.

### Irailaren 9an

#### ELORRIO jaiak

‘Ferixa Nausiko jaiak’.

‘Elorrioko kulturak dasta

ditzagun” elkartasun

jaialdia, goizean zehar,

Arriola kalean eta San

Pion; **herri kirolak: Alex**

**Txikon, Julen Mendieta,**

**Hodei Ezpeleta eta**

**Bihurri aizkolariak, eta**

**Ousman Drame eta**

**Laura eta Oskar Basatxu**

**harri-jasotzaileak**,

13:00etan, plazan; **bertso**

**saioa: Txaber Altube,**

**Gorka Pagonabarraga,**

**Miren Artetxe eta**

**Maialen Arzallus; Maite**

**Berriozabal arituko da**

**gai jartzaile**, 18:00etan

Casajaran; **Sonakay**

**taldearen kontzertua**,

19:30ean, plazan.



## Zea Mays

KONTZERTUA  
ELORRIO :: Irailak 7

Bilbotarrak hogeigarren urteurreneko biran murgildurik daude. Hamarka kontzertu eskaini dituzte uda honetan, eta gaurko honetan Elorrioren eskainiko dute zuzenekoa Koban taldeagaz batera.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [kultura@anboto.org](mailto:kultura@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

# Eskulan eta musika tailerrak

**TAILERRAK** • Durangoko Udalak eskulan eta musikako zortzi tailer antolatu ditu, sei urtetik gorako umeentzat. Margogintza, zeramika eta kakorraz eta bolillo lanak egiten, eta trikiti-xa, alboka, gitarra eta panderoa jotzen irakatsiko dute. Irailaren 17ra arte dago epea izena emateko, [informazioa@durango.eus](mailto:informazioa@durango.eus) helbidean, 946030030 telefonoara deituta edo Pinondo Etxean.



## Muntsaratz auzoko jaiak hasiko dira gaur

**JAIK** | Gaur iluntzean hasiko dituzte Abadiñoako Muntsaratz auzoko jaiak, Donien Atxa altxatu eta gero. Asteburu osoan zehar denetarikoko ekitaldiak egongo dira. Gaur, adibidez, parillada eta diskoteka egongo dira. Zapatuan tortilla eta paella txapelketak egingo dira, eta gaur eman beharko da izena parte hartzeko. Ez dira horiek izango zapatuko txapelketa bakarrak. Izan ere, biharko bazkalostean ohiko mus eta tute txapelketak jokatuko dira. Gazteenentzat, oster, mozo-rror lehiaketa, puzgarriak, buruhandiak eta tailerrak egongo dira. Domekan auzo bazkaria egingo dute, 14:30ean. Jaiei amaiera emateko, Ugasixo txapelketa egingo dute txosnan, eta ostean diskoteka eta txokolatada egongo dira.

### Irailaren 7an

**Donien Atxa jaso,** 19:00etan.

**Diskoteka DJ bategaz,** 20:30ean.

### Irailaren 8an

**Mozorro lehiaketa,** 11:45ean.

**Paella lehiaketa,** 14:00etan.

**Usue Martinez eta Nerea Alzaren kontzertua,** 20:00etan.

### Irailaren 9an

**Eriz magoa,** 13:30ean.

**Auzo bazkaria,** 14:30ean.

**Disko txiki,** 17:00etan.

**DURANGO deialdia**  
**‘Arma gaitzen autodefentsa feministaz’,** 17:00etan, Sorginolan.

**IURRETA ospakizuna XLV. Kofradia Eguna. Meza, kofradien batzar orokorra, dantzariak, bertsolariak eta anaia arteko bazkaria,** 12:00etan; **ume jolasak eta erromeria,** arratsaldean, Laixiar zelaian.

### Irailaren 10ean

**ELORRIO jaiak**  
**‘Ferixa Nausiko jaiak’.** **LIV. Idi proba. Sari banaketa,** 21:00etan, probalekuan.

### Irailaren 11n

**IURRETA deialdia**  
**‘Iurreta Plazaratu’,** 19:00etan, plazan.

### Irailaren 13an

**IURRETA ekitaldia**  
**‘Juan Orobiogoitiaren jaiotzaren 300. urteurrena’.** Egurrezko jolasak, 17:00etan, Olaburu frontoian, **Xabier Lamikiz EHUKo irakaslearen konferentzia,** 19:00etan, udaletxeko areto nagusian.

## Iraileko agenda



9

**“IURRETAKO KOFRADIEN EGUNA”**  
Laixiar zelaian

10

**“ANDEREBIDE GOIURIA KULTUR GUNEA”**  
**18:00** “Psicología del amor, vida y muerte” ikastaroa

13

**“GEREDIAGA ELKARTEA”**  
Juan Orobiogoitiaren jaiotzaren 300. urteurrena  
**17:00** Ume jolasak frontoian  
**19:00** Juan Orobiogoitiari oroimen ekitaldia Aita San Migel Plazan eta Udaletxean

14

**“ANDEREBIDE GOIURIA KULTUR GUNEA”**  
**17:00** Diafroterapia



Txaber Altube, Gorka Pagonabarraga, Miren Artetxe eta Maialen Arzallus bertsotan arituko dira Elorrian.

### Irailaren 15ean

**DURANGO musika**  
**El Puto Ben taldearen kontzertua,** 23:00etan, Plateruenran.

### Irailaren 16an

**DURANGO erakusketa**  
**Rai Bikandiren lanekin osaturiko erakusketa,** Ezkurdi aretoan.

### Irailean eta urrian

**DURANGO erakusketa**  
**‘Kingfisher’ erakusketa,** Unai Zocoren lanekin, Arteka liburu-dendan.

## Zine- ma

### :: Durango ZUGAZA

• **Un Oceano Entre Nosotros**

barikua 7: 19:30/22:00  
zapatua 8: 20:15/22:30  
domeka 9: 19:15/21:30  
astelehena 10: 18:30/21:00  
martitzena 11: 20:00  
eguzatena 12: 20:00

• **La Monja**

barikua 7: 19:30/22:00  
zapatua 8: 18:00/20:15/22:30  
domeka 9: 17:00/19:15/21:30  
astelehena 10: 18:30/21:00  
martitzena 11: 20:00  
eguzatena 12: 20:00

• **Kings**

barikua 7: 22:00  
zapatua 8: 20:15/22:30  
domeka 9: 19:15/21:30  
astelehena 10: 18:30/21:00  
martitzena 11: 20:00  
eguzatena 12: 20:00

• **Teen Titans Go!**

barikua 7: 19:30  
zapatua 8: 18:00  
domeka 9: 17:00

### :: Zornotza ARETOA

• **Yucatan**

zapatua 7: 20:15  
astelehena 8: 19:30/22:00  
martitzena 9: 20:00  
eguzatena 10: 20:15

# “Musikalki erronka bat da abestiak bion artean betetzea, baina konexio itzela dugu eta nahikoa garela uste dugu”

Ane Barcena durangarrak eta Raquel Pagèsek Pinpilinpussies sortu dute Bartzelonan; aste bi barru estudiora doaz lehenbiziko lana grabatzera



**Ane Barcena Zuazo**

Musikaria

**Durango | 1994**

**Raquel Pagès Marín**

Musikaria

**Bartzelona | 1994**

Modu honetan, bakoitzaren ziurgabetasunak askatzen ditugu. Gure deabruak kanporatzeko baliatzen ditugu abestiak, bide batez.

**Besteak beste, Moldy Peaches, Bikini Kill eta Courtney Barnett artisten eragina duzuela aipatu izan duzue. Besterik nabarmenduko zenukete? Nola definituko zenukete zuen musika?**

Beste askoren artean, horiek nabarmenduko genituzke. Raquelek folk eta pop doinuak entzuten zituen gehien bat, eta ni, oster, punketik eta rocketik nator, eta nire ustez hori da giltza; bion arteko nahaste-borrastetik irtendakoa da gustura sentiarazten gaituen musika. Entzun gaituztenek, garage, rock, pop, punk... eta halako berbak erabili dituzte gu definitzeko, baina guk ez dugu ezer definitu, eta agian, ez dago beharrik ere.

**Azken urteetan asko ugaritu dira bateriak eta gitarrak osaturiko due-toak. Zuen kasuan, hasieratik erabakitako zerbait izan da, ala berez gertatu da?**

Berez gertatu da. Konexio itzela nabaritu genuen gure artean biok, eta horregatik ez dugu ezer gehiago sartu gura izan. Musikalki erronka bat izan daiteke, kankak bion artean bete behar ditugulako, baina gaur egun indar askoko rock bikoteak daude, formatu horregaz posible dela erakusten ari dira eta haiengandik asko ikasten ari gara: Niña Coyote eta Chico Tornado, Bala edo Cala Venta gisako duoak topera dabilta!

**Aurrera begira, helbururik ezarri diozue zuen buruari? Nora iristea gustatuko litzaizueke?**

Jo eta jo aritzea gustatuko litzaizuke, asko entseatzea eta zuzenean sua ateratzea. Epe luzera begira, oster, ez dugu helbururik jarri. Disko laburra atera ostean kontzertu gehiago lortzea espero dugu, eta jendeak ondo pasatzea kontzertu horietan, edo grabaturikoa entzuterakoan. Eta topikoa iruditzen arren, ondo pasatzea da batez ere gura duguna; hori beharrezkoa da gauzek aurrera egiteko.

**Zerbait gehitzeko?**

Norbaitek zuzenean entzun gura bagaitu, deitu diezagula.

Ane Barcenak eta Raquel Pagèsek osatzen dute Pinpilinpussies

**MUSIKA** • ARITZ MALDONADO

**18 urte gaz Bartzelonara joan zen ikastera Ane Barcena Zuazo (Durango, 1994), eta han bizi da orduetik. Musikagaz harreman estua eduki du betidanik, eta hainbat instrumentu ere jotzen ditu. Batxilergoa ikasten ari zela, gitarra jotzen hasi zen, bere kabuz; orain urtebete, oster, bateria jotzen hasi zen. Gero, Raquel Pagès ezagutu, eta Pinpilinpussies sortu zuten. Aurretik zenbait orkestra eta konbotan aritu ostean, zerbait ezberdina egiten ari da orain Barcena. Gitarra gaz eta bateriagaz nahikoa dute horma akustiko bat eraiki, eta aho-tsekin sorturiko melodiekin abesti gordinak eskaintzeko. Lehenbiziko kontzertuan grabaturiko sei abesti dituzte Bandcampean entzugai. Aste bi barru, euren lehenbiziko lan laburra izango dena grabatuko dute Bartzelonan. Aurrerantzean kontzertu gehiago eskaintzeko ateak zabaltzeko baliagarria izango zaielakoan daude.**

**Nola sortu zenuten Pinpilinpussies?**

Raquel Pagèsek eta biok posgradu batean ezagutu genuen elkar orain urtebete. Gitarra jotzen dugu biok, eta horrez gain, bateria irakasle bera genuenez, egun batean jotzeko geratu ginen. Asmo berezirik barik. Aurretik kanta batzuk genituen bakoitzak konposaturik, eta entsegu horretan bateria doinuak sartu genituen. Gehiagotan elkartu, eta martxoan gure lehenbiziko kontzertua eskaini genuen. Ia konturatu barik iritsi zen egun hori.

“Egunerokotasunean oinarritzen diren letrak ditugu, esperientziei eta pentsamenduei buruzkoak”

**Nondik dator izena?**

Bartzelonako lagunei euskarazko berbak erakusten dizkiet, eta horietako hainbaten artean, pinpilinpauza asko gustatu zitzairen. Taldean neska bi garenez, berbaren pauza amaieraren orde, pussy [alua, ingelesez] esaten hasi ziren, eta horrela geratu zen (barrez).

**Zenbat kontzertu eskaini dituzue? Guztiak Bartzelonan?**

Orain arte zazpi kontzertu eskaini ditugu, hileko bat. Zorte handia eduki dugu, hiriko leku ospetsuetan jotzeko aukera eduki dugulako. Momentuz, ez gara irten, baina laster Bartzelonatik kanpo jotzen hastea ere espero dugu.

**Sei abestiko zuzeneko bat duzue bandcampean eskegita, entzungai.**

Bai, gure lehenbiziko kontzertua izan zen hori.

**Baduzue asmorik epe laburrean estudiora sartzeko?**

Bai. Hain zuzen ere, aste bi barru sartuko gara estudiora gure lehenengo disko laburra izango dena

grabatzeko. Bernat Sanchezegaz grabatuko dugu. Talde askogaz lan egin duen Bartzelonako ekoizle bat da. Udazkenean kaleratzea da gure asmoa, bideo klip batez batera.

**Ingelese abesten duzue. Zeri buruzko hitzak dira?**

Bai, ingelesez abesten dugu kanta hauetan. Hurrengo kantaren batean, baina, euskara eta gaztelania erabili gura ditugu. Egunerokotasunean oinarritzen diren letrak dira gehien bat, bion esperientziei eta pentsamenduei buruzkoak.

“Niña Coyote eta Chico Tornado, Bala edo Cala Venta gisako duoak topera dabilta; posible dela erakusten dute”

# Ostala- ritza gida

anboto



**Zornotza**



**IBARRA SAGARDOTEGIA**

Ibarra auzoa, z/g - ZORNOTZA

**Tel.: 946 731 100**

[www.ibarra-sagardotegi.com](http://www.ibarra-sagardotegi.com)



**Durango**



**GORA GORA**

Arriluzea kalea, 2 - DURANGO

**Tel.: 946 811 384**

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



**Durango**



**KOBIKA JATETXEA**

San Ignazio, 8 - DURANGO

**Tel.: 946 810 003**

Egile sukaldaritza eta tradizionala. Menu bereziak eta karta.



**Durango**



**PLATERUENA** Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4 - DURANGO

**Tel.: 946 030 300 - [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)**

Bokatak, pintxoak... Azoka egunetan bertako produktuekin egindago menu berezia karpan. Giro paregabea!



**Muxika**



**ASTEI JATETXEA**


Muniketa auzoa 8, MUXIKA

**Tel.: 946 732 318**

Bataioak, jaunartzeak, ezkontzak... Enpresa bazkariak. Egunekeo menua.



**Durango**



**IBAIZABAL KAFETEGIA**

Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO

**Tel.: 946 550 185**

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



**Abadiño**



**ABARKETERUENA**

Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO

**Tel.: 944 657 790**

Egunekeo menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

# Estetika gida

anboto



**Ile-apaindegia**



**946 582 996**

Nizeto Urkizu, 14 behea  
ELORRIO



**Ile-apaindegia**



**IUNIK**  
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1  
DURANGO  
**Tel.: 946 216 491**



## Azal polita lortzea

Ana Camarero Estetika Zentroa

**ANA CAMARERO** | Uda sasoian, eguzki indartsuaren eraginpean jartzen gara, eta horrek azala sikatzea ekar dezake, deshidratatzea, amatatzea eta hiperpigmentazio arazoak sortzea.

### Zer egin genezake azala zaintzeko?

Aurpegiko azalaren kasuan, hiperpigmentazioa peeling suabeekin tratatu behar da. Horrela, purifikatzea, oxigenatzea, dilatatzeko poroak zarratzea, eta azalaren hidratatzia hobetzea eta handitzea lortuko dugu.

Era berean, zimur txikiak murriztea, koloreak bateratzea eta argitasuna ematea ere lortuko dugu.

**Eskaintza berezi bat duzue irailerako zuen zentroan, ezta?**

Ana Camarero Estetika Zentroan, azala berriro ere polita eta argitsua izan dezazuen

laguntzea gura dugu. Horregatik, irailean zehar oso eskaintza ona daukagu, %50eko beherapenagaz. Deitu eta erreserbatu eza-zu zure zita!



**Estetika zentroa**

PSE: 36/16



irailaren  
3tik 28ra  
**27,50€**

**%50eko deskontua**

Hidratazio sakon bidezko  
aurpegi-tratamenduan:

**PEELING-A, ANPOILA HIDRATATZAILEA,  
MASAJE ERLAXATZAILEA ETA MASKARA**

Goienkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango  
**Tel.: 946 817 380 • [www.anacamarero.com](http://www.anacamarero.com)**

R.P.S.: 36/16

# Karlos Martinez durangarraren azken proiektua ikusgai Oteiza Museoan

Javier Arbizugaz elkarlanean 'Macla, mamua, bismuto, vicario' proiektua sortu du



Erakusketako pieza bat.

ARTEA • A.M.

Karlos Martinez eskultore durangarra eta Javier Arbizu eskultore nafarra Jorge Oteizaren lanera gerturatu dira *Macla, mamua, bismuto eta vicario* proiektuan. Altzuzako (Nafarroa) Oteiza museoan ikusgai egongo da azaroaren 30era arte; irailaren 15ean bisita gidatua egiteko aukera egongo da, eskultore bien eskutik. Maklaren ideia da abiapuntua, eta Oteizaren izen

**Azaroaren 30era arte egongo da ikusgai Altzuzako Oteiza museoan**

**Irailaren 15ean eskultore biek bisita gidatua egiteko aukera egongo da**

bereko obra multzoagaz lotuta dago; obra ikusten denaz haratago ulertzen laguntzeko baliagarria da proiektua, baita ere.

Orain hiru urte ezagutu zuten Karlos Martinezek eta Javier Arbizuk elkar, egonaldi artistiko batean. Antzeko interesak eta erreferenteak zituztela ikusita, elkarlanean hastea erabaki zuten.

## Geure Durangaldea

Jon Irazabal Agirre  
Gerediagako kidea



### Limako koadrila

Hemen, ohitura zen anaietako bat baserriagaz geratzea, gaitz nontzekoek bizitza beste nonbat egin behar zuten bitartean. Bideetako bat Amerikak egitera joatea zen; asmo horrekin joan zen gure inguruan jaiotako *Limako Koadrila*. Hirukote honek XVIII. mendean Peruko merkataritzaren zati bat euren esku izan zuen.

Hara joan zen lehena Amore-bietan jaiotako Martin Zelaieta izan zen. Txile eta Peruko merkatarari nagusienetakoa bihurtu zen. Martinek lur haietara eraman zuen Juan Bautista laguna. Zelaietaren aginduetara hasi ostean, bere kabuz jarraitu zuen. Arlo guztietan sartu zuen musturra Juan Bautistak. Bere merkantziak Ameriketatik Espainiara ekartzerakoan bere itsasontzi propioak izan zituen, inoren menpe ez egoteko. Juan Bautista, Maria Ignacia Carrillo de Cordoba y Garcés de Marcellarekin ezkondu zen eta honek noblezian sartzea suposatu zion. 1737an, lurrikara baten ondorioz, bere hainbat eraikinek kalte handiak izan zituzten. Erregeak izendapen aristokratikoak eman zizkien, eta Bautista, Conde de Vistaflores izendatu zuen. Gaur egun, titulua mantentzen dute bere ondorengoek. 1759an hil zen Liman. Bere semea, Jose Javier Leandro itzal handiko idazle eta Peruko independentziaren aitzindari izan zen. Koadrilako hirugarrena Juan Orobiogoitia dugu. Iurretako Orobiogoitia baserrian jaioa, 1718an. Merkataria, Limako kontsulatuko epaitegiko kontseilari eta "Hermandad de los Caballeros Hijosdalgos de la Nación Vascongada" kidea izan zen. 1794ko irailaren 9an, hil zen. Bere testamentuan utzitako diruei esker sortu zen 1801an Iurretako lehen letratarikoko herri eskola.

## Sormen Bekarako ideiak irailaren 21era arte aurkeztu ahalko dira

Abenduaren 5etik 9ra bitartean egingo da Durangoko Azoka, eta antolatzaileek deia egin diete sortzaileei

AZOKA • MARKEL ONAINDIA

Durangoko Azokaren 53. edizioa izango da aurtengoa, abenduaren 5etik 9ra bitartean egingo dena. Lehenengo aldiz Sormen Beka emango dute Gerediagak eta udalak, eta gogoratu dute irailaren 21era arte egongo dela ideiak aurkezteko aukera. Aurtengo deialdian literatura izango da oinarri,

eta irabazleak 15.000 euroko laguntza jasoko du.

Ekoizleek irailaren 30era arte eskatu ahal dute standa, eta eskualdeko sortzaileei Gerediagarenean egingo diete lekua, doan. Bestalde, ikastetxeek urriaren 1etik 15era bitarteko epea edukiko dute abenduaren 5eko ikasle eguneko ekin-tzetan izena emateko.



Durangoko Azokaren 53. edizioa ospatuko da aurtengoa.


[www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)



**PLATERUENA**  
Kafe Antzokia  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jaletxea@plateruena.net



**EL PUTO BEN**  
Kontzertua



**JAKINDURIEK MUNDUE ERREKO DAU**  
Bertso saloa



**San Agustin kultur gunea**  
durango

23an hasiko dugu denboraldi berria!



Hizkuntza Escuela Oficial  
Eskola Ofizial de Idiomas

Hizkuntza eskolan?

Bai. Ikasi euskara

Ja. Lernen Sie Deutsch

Oui. Apprenez le français

Yes. Learn English

### Esperientzia handia

1994tik Durangon

### Hizkuntzak

Euskara, alemana, frantsesa  
eta ingelesa.

### Mailak

A1 - A2 - B1.1 - B1.2 - B2 - C1

### Orduak

Astean 4:30 ordu, egun bitan

### Titulu ofizialak

A2 - B1 - B2 - C1

### Prezioa

72,36 €  
ikasturte osoa

### Matrikula

ON-LINE

1. fasea: irailaren 1etik 19ra
2. fasea: irailaren 19tik urriaren 4ra

PRESENTZIALA

Urriaren 24an

### Gogoratu

Euskara C1 semipresentziala:  
2 talde

Ordutegi zabala

Alemana C1

[www.eoidurangoheo.hezkuntza.net](http://www.eoidurangoheo.hezkuntza.net)  
94 620 33 42 - 94 681 66 45



# Bizkaiak Berrizen defendatuko du Bote Luzea txapelketako txapela, Amantegi eta Arabiourrutia talde titularrean daudela

Bizkaiak zapatu honetan hasiko du txapelketa Berrizburuko frontoi irekian, eta Gipuzkoako talde bat izango du aurkari



Bizkaiko talde titularra, iaz. Aurretan Ander Antxia abadiñarrak —ezkerrean, behean— ez du jokatu, eskuko minengatik.

## PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Euskal Herriko Bote Luzeko Txapelketa hasiko da asteburu honetan. Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko zortzi taldek parte hartuko dute eta Bizkaiako taldeak, iazko moduan, Berrizen jokatuko ditu bere partidu guztiak.

Lehenengoa zapatu honetan izango da, 18:30ean, Berrizburuko frontoi irekian. Gipuzkoako talde bat izango du aurkari. Iragarpenen arabera, ez du euririk egingo eta hori albiste ona da. Iaz, euriaren ondorioz, ordubete inguru geratu behar izan zuten partidu bat. Ater-

tu zuenean jarraitu zuten berriro. Baina aurretan ematen du lehen jardunaldian ez dela etenik egongo, iragarpena goizetik gauera aldatzen ez bada.

Bigarren jardunaldia irailaren 22an izango da, 18:30ean, eta Itsasu herriko taldeak —Lapurdi, Ipar

**Berrizko Berrizburun jokatu den bigarren jardunaldia irailaren 22 arratsaldean izango da**

Euskal Herria— bisitatuko du Berriz. Egun horretan, emakumeen MPB paleta goma zirkuituko jardunaldi bati dagozkion partiduak ere jokatu dira.

## Arabiourrutia eta Amantegi

Bizkaiko taldean iazko boskote titularretik bat falta da aurretan: Ander Antxiak ezin du jokatu, eskuko minengatik. Haren tokia Aitor Arabiourrutia bere herrikideak hartuko du. Arabiourrutia eta Egoitz Amantegi abadiñarrekin batera, Lur eta Ekhi Ziarrustak eta Inhar Ugartek osatu dute taldea.

## Bote Luzea, munduan

Bote Luzea euskal pilotaren jokamolde antzinakoa da. Bost pilotariko talde bik kantxaren alde banatan aurretan aurre daudela jokatzen dute, tenisean antzera. Hemen Bote Luzea izena duen modalitatea LLargues izenagaz da ezaguna nazioartean eta, besteak beste. Belgikan, Kolonbian eta Herbehereetan jokatzen dute.

Euskal selekzioak Kolonbian jokatu duen munduko txapelketan eta Herbehereetan jokatu duen Europakoan —azken hori joan den abuztuan— parte hartu du. Beraz, bote luzea modalitatea askok uste dutena baino hedatuago dago.

# Eguraldiagatik atzeratutako Euskal Herriko Hike&Fly txapelketa zapatu honetan egingo dute, Elorrioren

Herriko Plazatik abiatuta, oinez eta parapentez ibilbide bat egin beharko dute txapelketan parte hartzen dutenek

## ELORRIO • JOSEBA DERTEANO

Elorrioko Larrano Parapente Taldeak Euskal Herriko Hike&Fly txapelketa antolatuko du zapatuan. Euskal Herrian modalitate horretako txapelketa antolatzen den lehenengo aldia izango da.

Ekainaren amaieran egitea aurreikusita zegoen, baina eguraldiak ez zuen ahalbidetu. Ondorioz, antolatzaileek ekimena atzeratzea erabaki zuten. Zapatu honetakoa bigarren saiakera izango da.

Dena ondo badoa, parapentelari josiko da Elorrioko zerua, kirol horretako osagai bereizgarriena horixe delako. Berez, zenbait dohain uztarketa eskatzen duen kirola da. Estrategian burutsua, fisikoki prestatua eta hegaldi librean abila izan behar du partaideak. Denbora



Elorrioko Larrano parapente taldeak antolatuko du txapelketa, Euskadiko Aire Kirol Federazioaren eta bestelako erakundeen babesagaz.

jakin batean, antolakuntzak zehaztutako ibilbidea egin beharko dute, oinez eta parapentez.

Egunean bertan egin daiteke izen-ematea, 10:00etatik 12:00etara, Elorrioko Herriko Plazan. Txapelketa plazatik bertatik abiatuko da, 12:30ean. Iguriara eta Udalatxeko meategi inguruetara igoko dira oinez, hantxe dagoelako parapente hegaldirako abiapuntua. Behin ai-

**Lurreratzea San Antonen egin beharko dute, eta berriro herrigunera itzuliko dira**

rean, nork bere abilitadea erakutsi beharko du baliza zirkuitu batetik igarotzeko. Lurreratzea San Antonen egin beharko dute parte-hartzaileek, eta hankak lurrean jarri ostean berriro herrigunera itzuliko dira, lasterketako helmuga plazan egongo delako.

Iluntzean, partaideak afarian batuko dira.

# "Badakigu Oizko etapak ilusio berezia egiten diola Mikeli, eta geu ere han izango gara bera animatzen"

Lagunek animoak bidali dizkiote Mikel Bizkarrari irailaren 12an Oizen amaituko den Espainiako Vueltako etaparako

**TXIRRINDULARITZA • M. ZUAZUBISKAR**  
Eneko Lejarreta, Gorka Bizkarra, Illart Zuazubiskar eta Alex Unzueta urduri jarraitzen dabilta aurtengo Espainiako Vuelta, baina ilusio bereziagaz aldi berean, euren lagun Mikel Bizkarra estreinakoz ari baita itzuli handi bat lehiatzen.

Urteak pasatu dira txirrindularitzak boskotea batu zuenetik. Hasi-  
ran lasterketetan aurkari zirenak  
entrenamenduetako kide eta lagun  
kuadrilla bilakatu ziren denbora  
gutxira. Egun laukoteak itxaropen-  
tsu jarraitzen dio mañariarraren  
ibilbideari. "Mikel itzuli handi  
batean ikusita oso pozik gaude, eta  
esan beharra dago emozio handia-  
gaz bizi dugula aurtengo Vuelta",  
aitortu du Lejarretak.

Gorkak, Mikelen anaia zaha-  
rrenak, dagoeneko izan du aukera  
Euskadi-Murias taldeko txirrindu-  
laria Espainiako Vueltan zuzenean  
ikusteko. "Etxekook sorpresa bat  
eman gura genion eta Andaluzia-  
ko lehenengo etapak ikustera joan  
ginen. Ostean, Covatillako etapan  
ere izan nintzen. Merezi izan zuen

hara joatea Mikel horren zoriontsu  
ikustearren", azaldu du Gorka Biz-  
karrak.

Gainontzekoek orain arte te-  
lebistaz jarraitu diote lagunaren  
jardunari. Hala ere, Oizko etapan  
ez dutela hutsik egingo aitortu du-  
te, lanean jai eskatu behar badute

ere. "Badakigu Oizko etapak ilusio  
berezia egiten diola Mikeli, eta  
beraz, geu ere han izango gara bera  
animatzen", aitortu du Unzuetak.

Irailaren 12an Durangaldean  
amaituko da etapa, eta hor egu-  
nean mañariarrak "lasterketaz  
gozatzea" dute helburu. Gainera,

konfiantza osoa dute euren laguna-  
rengan. "Ziur gaude protagonisten  
arte egongo dela Mikel Oizen,  
eta zerbait polita egingo duela",  
esan du Zuazubiskarrek. Horrez  
gain, itzulia amaitutakoan afari  
bat zor diela gogorarazi dio lauko-  
teak grupetako kideari.



Ezkerretik hasita, Eneko Lejarreta, Gorka Bizkarra, Illart Zuazubiskar eta Alex Unzueta.

## Adituaren txokoa

Garazi Sampedro  
Arando  
Mendi lasterketak  
Mendi lasterketak



### Sorginen lasterketa

Goizeko txirrina gaur ez da  
hain mingarri gertatu, astean  
zehar baino lehenago esnatu  
arren. Jantzi, betikoa gosald  
eta komunera. Eguneroko  
ekintzak normal egiten saia-  
tu arren, baduzu lasterketa  
bereziatako har hori barruan,  
sabelean.

Dena hartu duzula ziurtatu.  
Aneri mezua: banoa horran-  
tza. Lagunak jaso eta Atxondo  
helburu. Bidean ikusi duzue  
Anbotok ez duela txapelik jan-  
tzi! Axpera heldu bezain laster,  
dortsalaren bila joan eta on-  
doko karpan kafe bana eman  
dizute giharrak berotzen hasi  
orduko. Ohartzera, heldu da  
kanpai-hotsa! ...3-2-1! Aurrera!

Azkarregi hasi zara: "Tran-  
kil! Hau luzea da", zeure bu-  
ruari. Errekaunditik gora ere  
ederto berotu duzu hauspoa  
eta goian Anboto hain handi,  
hain harro ikustean psikolo-  
gikoki gainbeheratxo dator:  
Nora noa ni? Zabalaundin ez-  
tarria busti eta gorako bideari  
ekin diozu soseguz. Erritmo  
erosoa aurkitu eta espero bai-  
no hobeto heldu zara tonto-  
rrera. Beherako bidea astiro,  
harkaitz artetik tentu han-  
diz zoaz. Orain arte inguruan  
egindako lasterketarik tekni-  
koena iruditu zaizu, jaitsiera  
honengatik. Korrika egiteko  
gogo biziz amaitu duzu jaitsie-  
ra zoro hau. Asuntzen beste  
tragotxo bat eta lokatz artetik  
beheraka, Alluitzeko hormak  
zaindari. Artola ahal bezain  
indartsu igo ostean, Axperai-  
noko jaitsiera baino ez da gera-  
tzen amaitzeko. Eta, azkenean  
helmuga!

Bip! Alarma. Irailak 7. Go-  
saldu eta, ahaztu orduko, Ki-  
rolprobak web atarian eman  
duzu izena Sorginen Lasterke-  
tan parte hartzeko. Ea iraila-  
ren 15ean bart gaueko amets  
hau egia bihurtzen zaizun!

## Asteko kirolaria



IBON  
PUJANA ITURBE

Durango, 1971

Orain urte bi pasatxo hasi zen  
mendi lasterketak egiten, eta joan  
zen asteburuan Mont Blanc ultra  
traila amaitu zuen Ibon Pujanak.

## "Garaiera handian geundenean sentsazio termikoa zero azpitik hamar gradukoa zen"

Mont Blanc ultra trail gogorra amaituta, urteko helburu nagusia bete du Pujanak

### Aspaldi hasi zinen lasterketak egiten?

Beti izan naiz mendizalea, eta  
martxa herrikoiak egin ditut.  
Orain urte bi pasatxo hasi nintzen  
lasterketak egiten: Hiru Haundiak  
eta Basque Ultra Traila, besteak  
beste. Zozketan Mont Blanc-ekoa  
egitea egokitu zitzaidanean, urte  
osoa horixe prestatzen eman dut.  
Nire urteko helburua izan da.

Hain distantzia luzean (170 km) ari-  
tzen zaren lehenengo aldia izan da?

Bai. Luzera aldetik zein desnibel  
aldetik inoiz egin dudana gogorre-  
na izan da. Aurretik, 130 kilome-  
trokoa zen nik egindako luzeena.

### Zelan joan zen lasterketa?

Nire helburua amaitzea zen. Fisi-  
koki exigentea da, baina, nire us-  
tez, burua ondo kudeatzen jakin  
behar duzu. Esaterako, lehenengo  
gaua gogorra izan zen, euri asko  
egin zuelako eta garaiera handian  
geundenean sentsazio termikoa  
zero azpitik hamar gradukoa ze-

lako. Asko sufritu nuen. Hurrengo  
egunean, beste mendi batean hai-  
ze handia zebilen, eta ezin ginen  
ia ibili. Baina esperientzia zoraga-  
rria izan da. Eskerrak eman gura  
dizkiot AL-KO Record enpresari  
emandako laguntzagatik.

### Zer irakatsi dizu lasterketak?

Bi ondorio ateratu ditut. Batetik,  
zeure buruarengan sinetsi behar  
duzu. Hori da garrantzitsua. Be-  
setetik, entrenatu eta fisikoki  
ondo prestatu beharra dago.

CERAMICAS  
**MACOBER**  
MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**  
Chimeneas  
Caminos MACOBER  
**ERAIKUNTZAKO MATERIALA  
ZERAMIKA ETA GRESA**  
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Bulegorako  
zigiluak  
Fotolitoak  
**Betikoak**  
flexografía  
946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

**hitz** liburutenda  
artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburutenda.com  
#nobedadeak  
IBAN ZALDUA  
SEKULA KONTATU BEHAR  
EZ NIZKIZUN GAUZAK  
Iban Zaldúa  
2018  
HELDUENTZAT  
UME ETA GAZTEENTZAT  
GAIZTOAK  
Clotilde Perrin  
2018  
ELLIOTT MURPHY  
PRODIGAL SON  
Elliott Murphy  
2017  
MUSIKA  
PRODIGAL SON





| Eskela                                                                  |                                                                         |
|-------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------|
| <b>BARIKUA, 7</b> - 09:00-09:00                                         | <b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>                 |
| <b>MUGICA</b> Andra Maria 9 - <b>DURANGO</b>                            | <b>09:00-22:00</b>                                                      |
| <b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>                 | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>           |
| <b>09:00-22:00</b>                                                      | <b>ASTELEHENA, 10</b> - 09:00-09:00                                     |
| <b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b> | <b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>                             |
| <b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>             | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>           |
| <b>SARASKETA, DIEGO LUIS</b> Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>           | <b>09:00-22:00</b>                                                      |
| <b>ZAPATUA, 8</b> - 09:00-09:00                                         | <b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b> |
| <b>ETXEBARRIA</b> Montevideo etorb. 2. - <b>DURANGO</b>                 | <b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>             |
| <b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>                 | <b>MARTITZENA, 11</b> - 09:00-09:00                                     |
| <b>09:00-13:30</b>                                                      | <b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b>                     |
| <b>MUGICA</b> Andra Maria 9 - <b>DURANGO</b>                            | <b>SARASKETA, DIEGO LUIS</b> Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>           |
| <b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>                   | <b>09:00-22:00</b>                                                      |
| <b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - <b>DURANGO</b>                      | <b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b> |
| <b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>                             | <b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>             |
| <b>SAGASTIZABAL</b> Askatasun etorb. 19 - <b>DURANGO</b>                | <b>EGUAZTENA, 12</b> - 09:00-09:00                                      |
| <b>DE DIEGO</b> Intxaurreondo 22. - <b>DURANGO</b>                      | <b>SAGASTIZABAL</b> Askatasun etorb. 19 - <b>DURANGO</b>                |
| <b>BALENCIAGA</b> Ezkurdi plaza 8 - <b>DURANGO</b>                      | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>           |
| <b>BAZAN DIAZ</b> Uribarri 5 - <b>DURANGO</b>                           | <b>09:00-22:00</b>                                                      |
| <b>JAIO-OLABARRIETA</b> Errekakale 6. - <b>ELORRIO</b>                  | <b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b> |
| <b>EGUREN, ISABEL</b> Trañabarren 15. - <b>ABADIÑO</b>                  | <b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>             |
| <b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>             | <b>EGUENA, 13</b> - 09:00-09:00                                         |
| <b>09:00-14:00</b>                                                      | <b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>                             |
| <b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b>                     | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>           |
| <b>09:00-22:00</b>                                                      | <b>09:00-22:00</b>                                                      |
| <b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b> | <b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b> |
| <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>           | <b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>             |
| <b>DOMEKA, 9</b> - 09:00-09:00                                          |                                                                         |
| <b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>                   |                                                                         |

ESKER ONA

**Julene Barrenetxea Zuazua**

2018ko abuztuaren 28an hil zen, Gurutzetan, 42 urte zituela.

Senar Iker Alberdiren, seme-alaba Intza eta Lizarren eta gainerako familia osoaren partetik, eskerrik asko doluminak helarazi dizkiguzuen guztioi.

—

Zuretzako gure agurrik politena zuretzako muxurik ederrena.

Gure bihotzean beti eramango zaitugu, maitia.

Abadiñon, 2018ko irailaren 7an.

### Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

**GOZATU**  
**GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11. DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

Gure txikitxuek 3 eta 5 urte bete dituzte. Zorionak, **Danel** eta **Urko** eta muxu potolo bana etxekuen partez.

Irailaren 6an Oromiñoko **Karmelo** Iriondon urtegune izen zan. Zorionak, aittitte!

**Elene**, 10 urte zurekin disfrutatzen! Maite zaitugu, laztana. Zorionak! Ama, aita eta Naia.

Irailaren 4an **Ekain** Murielak 4 urte egin ditu. Zorionak, guapo!

Zorionak, **Ane**, zure 6. urtebetetzi. Mosu potolo bat etxekuen partez

Zorionak, **Eider**! Abuztuaren 31n 8 urte bete zituen gure printzesak. Musu handi bat eta besarkada bat, Inhar, ama eta aitaren partez!

| Eguraldia             |                          |                         |
|-----------------------|--------------------------|-------------------------|
| ZAPATUA 🌡 28° / 13° ☁ | ASTELEHENA 🌡 24° / 13° ☀ | EGUAZTENA 🌡 31° / 18° ☀ |
| DOMEKA 🌡 24° / 13° ☁  | MARTITZENA 🌡 29° / 13° ☀ | EGUENA 🌡 25° / 16° ☁    |

**CENTRAL FORESTAL**

## Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

**Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta**  
**Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194**

## "Isuna jartzen zizuten udalek hormak margotuta gura dituzte orain"

1996an egin zuen bere lehenengo murala eta, harrezkero, 700 inguru egin ditu European zehar. Urtarrilean urte bi izango dira Atxondora etorri zela, eta oso pozik dago bertan.

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

**Estatubatuarra da jaiotzez Lian, baina Kataluniakoa izatez. Halaxe sentitzen da, 16 urte zituenetik L'Hospitalet de Llobregaten bizi ondoren. Muralgilea da eta, orain, Atxondon bizi da. Euskaraz ikasten ari da, argi du-eta bertako hizkuntzan komunikatu gura duela. Bilboko bizikleta denda batean egingo du hurrengo lana, eta, urrian, AEBetara joango da: New Yorken eta Savannah-n (Georgia) ditu lotuta lan bi. Igerilekuko sarreran batu gara Lianegaz, berak egindako muralaren parean.**

### Nolatan etorri zinen Atxondora?

Urtarrilean urte bi izango dira etorri nintzela. Lagunak ditut hemen eta Hospitaletetik irten gura nuen. Haizea hartu, mendia.... gozamina da hemen bizitzea!

### Euskaraz ere polito egiten duzu...

Nagoen tokiko herritarrekin komunikatu ahal izatea gustatzen zait. Ingelesa, katalana, gaztelania eta italiera hitz egiten ditut, eta euskara pixka bat. Ikasten nabil. Errespetu kontua da. Bizi zaren lekuko hizkuntza ikasi behar dela uste dut. Gainera, itzela da nire irakaslea, oso ona! Izan dudana onena.

### Barraskiko etxe okupatuetan bizi zara. Katalunian asko hedatutako mugimendua da hori, hemen ez horrenbeste...

Hala da, bai. Herriaren okupazioa izan zen Barraskikoa, hala esan zidaten. Bertakoek okupatu zituzten etxeak, ugazabak ihes egin zuela jakinda. Horregatik erakarrri ninduen proiektuak. Eraikina abandonatuta utzi beharrean, bizi pixka bat eman zioten. Askotariko jendea gaude.

### Atxondon horrelako proiektu bat aurkitzeak harritu egin zintuen?

Bai. Euskaldunak oso itxiak zarete la esan zidaten, baina justu kontraogaz egin dut topo: herri irekia da. Denak oso irekiak direla ikusi dut, agurtu egiten naute, jende piloa ezagutu dut... Oso ondo hartu naute! Etorrita nengoen Euskal Herriera, lagunak ditut, baina jendea horren irekia izateak harritu nau...

### Muralak, grafitiak, egiten dituzu. Ofizio bihurtutako zaletasuna?

Bai. Bartzelonan landare haztegi batean eta bizikleta tailer batean nituen lanak utzi eta muralak egitetik bizimodua ateratzea erabaki nuen. Ibilia nintzen lehen ere, baina mugimendu sozialekin lotuago...

### Katalunian bertan?

Batez ere. Baina European ere asko. Italian, Grezian, Alemanian eta Ingalaterran ibili naiz, muralak margotzen. Bestela ere asko ibilia naiz European, bizikletan. Danimarkatik Espainiara joan nintzen bizikletan.

### Zerk inspiratzen zaitu?

Gauza askok, mural bakoitzak bere iturburua du. Oraintsu Leonen egon naiz eta 20 metroko emakume izugarria margotu dut. Gizonek menderatutako mundua da grafitiarena, eta emakume perfektua, ederra, islatzen duten irudiak dira nagusi. Horregaz apurtu gura dut, emakumeari ikusgaitasuna eman. Beste gai batzuk ere landu ditut. Errefuxiatuena, adibidez.

### Modan dago grafitia?

Muralismoa ez da gauza berria, neolitikoan ere margotzen zituzten-eta hormak. Espraia teknika berri bat baino ez da. Muralismo garaikidea oso herrikoia da, horrek berba egiten dute. Egindako

lana publiko osoagaz partekatzeak aukera ematen dizu, museoetara doan publikoaz aparte, publiko orokorrarengana heltzeko aukera. Espraia erreminta bat da jendarteari zerbait adierazteko.

### Gero eta gehiago ikusi daitezke...

Booma izan da azken hamarkadan. Isuna jartzen zizuten udalek

h o r -

m a k

m a r -

g o t u -

t a g u r a

d i t u z t e

o r a i n :

o r a i n d e l a

g u t x i e a

m u r a l b a t

e g i n g o n u e n

g a l d e t u z i d a t e n

L'Hospitaleten.

O r a i n h a m a r u r t e

j u s t u h o r m a

h u r a m a r -

g o t z e a g a t i k

j a r r i z i d a t e n

i s u n a k e n d u z

g e r o e g i n g o

n u e l a e s a n n i e n.

**Non margotu duzu?**

Atxondon, igerile-

kuan; Barraskin, haur es-

kolan eta herri eskolan.

**Lian Montserrat**  
**'Murales Lian'**  
Muralgilea  
**L'Hospitalet de Llobregat**  
**(Katalunia) |1981**

Elorrioko Gaztetxearen 30. urteurrenerako ere egin nuen, eta Sapuetxen ere bai: lehoia ehizatu gura duten zebra taldea. Madrilen, Vallecasen egindako 20 metroko murala dut oso gogoko: adineko andra bat, hangoa...

### Baduzu erreferenterik?

Askok! Laguna dudana RockBlack-Bloc (Bartzelona) eta Dadospunto-cero (Leon); beragaz margotzeko ohorea izan dut Leonen eta izugarria izan da! Beste maila batean, Mantrea (Frantzia) edo Rogueone (Eskoizia). Andren artean, Faith47 (Hegoafrika). Lan izugarriak ditu.



## Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren  
Irakaslea



### Oztoporik ez, eskerrik asko

Herri eta toki desberdinetan obra eta hobekuntza handiak egiten ari dira trabak eta oztopoak kentzeko. Hori eskertzekoa da, baina oraindik badago hobetzeko esparrua. Adibide gisa nire herrian, Elorrioren, oinarrituko naiz.

Kultur Etxera joan nahi badugu nahiko aldapatsua den bidea jaitsi behar dugu eta euria egiten duenean arriskutsuagoa bihurtzen da. Horri konponbidea emateko, proposamen bat aurkeztu nuen udaletxean eta ez dut erantzunik jaso. Proposamen horretan atzealdean dagoen lautada egokitu eta handik zuzen sartzea eskatzen nuen.

Kainaberak GKEak kexa sartu ondoren pibotea zabaltzeko agintea utzi zidaten, Kultur Etxearen alboan aparkatzeko, baina toki hori aldapan dago eta horrek beste oztopo bat gehitzen du.

Berrio Otxoa kalean, sarrean eta irteeran, kamerak jarri dituzte kotxeen egonaldiak kontrolatzeko eta 30 minututik gora egonez gero, isuna. Nire moduko edonork kotxetik irteteko eta sartzeko nahiko denbora behar du eta horri egin behar duguna gehituz gero, igarotako 30 minutuak. Eta ondorioz, isuna. Hori konpontzeko, zergatik ez egin elbarrien txartela dugunon errolda? Zerrenda udaletxean dago. Borondate pixka bat balego, beste oztopo bat gutxiago.

Ezin ahaztu udaletxean bertan, pleno aretora edo azken solairura joan ahal izateko dauden oztopoak. Arriolan, Ateneora jaisteko eskailerak. San Faustokaleko espaloia, etab., etab.

Laster hauteskundeak ere badatoz eta talde politikoek makro proiektuak aurkezteaz gain ea aipatu ditudan oztopoei ere aurre egiten dieten. Horri horrela bada, gero eta herritar gehiagoren esker ona jasoko duzue.



**DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA**  
**CEPA DURANGO HHI**  
**Doako irakaskuntza ofiziala**

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253  
www.epadurango.hezkuntza.net



### IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzeritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

### IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



**MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253**  
www.epadurango.hezkuntza.net

**MATRIKULA-EPEA: Irailaren 4tik 14ra.**

**Matrikula egiteko ordutegia:**  
Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00  
Ostiralean: 09:00-13:00